ESKOLA KIROLA • 2025-2026 •

# GIPUZKOAKO ESKOLA-ADINEKO JARDUERA FISIKOKO ETA KIROLEKO PROGRAMA

2025
2026




GIPUZKOA
Kirolak

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua.

L.G. / D.L: SS-715-1996


IKASTETXEA
5
8
2
4
18

ESKOLA-ADINEKO JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN PROGRAMA

GIPUZKOA

# 2025

### URTARRILA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | **1** | 2 | 3 | 4 | **5** |
| **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | **19** |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | **26** |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

### OTSAILA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | **2** |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | **9** |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | **16** |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | **23** |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | | |

### MARTXOA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | **2** |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | **9** |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | **16** |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | **23** |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | **30** |
| 31 | | | | | | |

### APIRILA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | **6** |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | **13** |
| 14 | 15 | 16 | **17** | **18** | 19 | **20** |
| **21** | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | **27** |
| 28 | 29 | 30 | | | | |

### MAIATZA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | **1** | 2 | 3 | **4** |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | **18** |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | **25** |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

### EKAINA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | **1** |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | **15** |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | **22** |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | **29** |
| 30 | | | | | | |

### UZTAILA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | **6** |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | **13** |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | **20** |
| 21 | 22 | 23 | 24 | **25** | 26 | **27** |
| 28 | 29 | 30 | **31** | | | |

### ABUZTUA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | **3** |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | **10** |
| 11 | 12 | 13 | 14 | **15** | 16 | **17** |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | **24** |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | **31** |

### IRAILA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | **7** |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | **14** |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | **21** |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | **28** |
| 29 | 30 | | | | | |

### URRIA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | **5** |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | **19** |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | **26** |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

### AZAROA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | **1** | **2** |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | **9** |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | **16** |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | **23** |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | **30** |

### ABENDUA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | **6** | **7** |
| **8** | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | **14** |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | **21** |
| 22 | 23 | 24 | **25** | 26 | 27 | **28** |
| 29 | 30 | 31 | | | | |

# 2026

### URTARRILA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | **1** | 2 | 3 | **4** |
| 5 | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | **18** |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | **25** |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

### OTSAILA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | **1** |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | **15** |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | **22** |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | |

### MARTXOA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | **1** |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | **15** |
| 16 | 17 | 18 | **19** | 20 | 21 | **22** |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | **29** |
| 30 | 31 | | | | | |

### APIRILA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | **2** | **3** | 4 | **5** |
| **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | **19** |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | **26** |
| 27 | 28 | 29 | 30 | | | |

### MAIATZA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | **1** | 2 | **3** |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | **10** |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | **17** |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | **24** |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | **31** |

### EKAINA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | **7** |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | **14** |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | **21** |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | **28** |
| 29 | 30 | | | | | |

### UZTAILA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | **5** |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | **19** |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | **25** | **26** |
| 27 | 28 | 29 | 30 | **31** | | |

### ABUZTUA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | **2** |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | **9** |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | **15** | **16** |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | **23** |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | **30** |
| 31 | | | | | | |

### IRAILA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | **6** |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | **13** |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | **20** |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | **27** |
| 28 | 29 | 30 | | | | |

### URRIA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | **4** |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** |
| **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | **18** |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | **25** |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

### AZAROA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | **1** |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | **15** |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | **22** |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | **29** |
| 30 | | | | | | |

### ABENDUA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | **6** |
| 7 | **8** | 9 | 10 | 11 | 12 | **13** |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | **20** |
| 21 | 22 | 23 | 24 | **25** | 26 | **27** |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

# Gipuzkoako Udalak




● ESKUALDEKO KIROL BULEGOA

# I aurkibidea I

**I. ERANSKINA:**
**Eskola-adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren programa 2025-2026rako** .... 7

Hitzaurrea .... 7

Eskola-adineko JFK programaren oinarriak .... 12

1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESKOLA-ADINEKO JFK PROGRAMAREN OINARRIAK .... 12
2. GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ESKOLA-ADINEKO JFK PROGRAMAREN OINARRIAK .... 13

**Kirol ibilbideak eta jarduerak** .... 15

1. KIROL-IBILBIDE MOTAK .... 15
   - 1.1. Kirolean parte hartzeko ibilbidea .... 15
   - 1.2. Errendimenduan Hasteko Ibilbidea .... 16
   - 1.3. Kirol talentuak eta promesak identifikatzeko ibilbidea .... 16
2. KIROL-JARDUERA MOTAK .... 17
   - 2.1 Irakaskuntzako jarduerak .... 17
   - 2.2. Lehiaketa-jarduerak .... 17
   - 2.3. Detekzio-jarduerak .... 18
   - 2.4. Ibilbideko jardueretan hasteko adinaren laburpena .... 18

**Parte hartzeko irizpide orokorrak** .... 19

1. NORK HAR DEZAKE PARTE? .... 19
   - 1.1. Gipuzkoako lurralde historikoan matrikulatutako eskola-umeak .... 19
   - 1.2. Gipuzkoako lurralde historikoan matrikulatuta ez deuden eskola-umeak .... 19
2. ESKOLA-KIROLARI BURUZ INDARREAN DAGOEN ARAUDIAREKIN BAT DATORREN KIROL-HASTAPENA BABESTEKO IRIZPIDEAK .... 20
   - 2.1. Hasierako adinetan kirol anitzeko praktika bat sustatzea .... 20
   - 2.2. Eskola-umeek adinaren arabera dagokien kategorian parte hartzea .... 21
   - 2.3. Eskola-umeek bizi diren edo eskolatuta dauden lekuan parte hartzea .... 21
3. ESKOLA-KIROLAREN APLIKAZIOAN (KIROL DATA) IZENA EMATEA .... 22
   - 3.1. Eskola-kirolaren aplikazioan eskola-umeen lehen alta .... 22
   - 3.2. Izena emateko epeak eta erakunde arduradunak .... 22
   - 3.3. Eskola-lizentzia digitala .... 23
     - 3.3.1. Eskola-lizentzia deskargatzea .... 23
     - 3.3.2. Intzidentzia duten taldeak eta/edo parte-hartzaileak .... 23
4. ESKOLA-KIROLEKO ASEGURUA .... 23
   - 4.1. Arriskuen estaldura .... 23
   - 4.2. Aseguruaren estalduren kudeaketa .... 24
5. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN BETEKIZUNAK .... 24
   - 5.1. Euskadiko kirol erakundeen erregistroan inskripzioa .... 24
   - 5.2. LOPIVI betetzea .... 25
   - 5.3. Eskola-kirolaren aplikazioan izena ematea .... 25
   - 5.4. Datu pertsonalen babesa .... 26
   - 5.5. Publizitateari buruzko araudia betetzea .... 26
   - 5.6. Eskola-kirolaren araudia betetzea .... 26
     - 5.6.1. Jardueren garapena etetea. Ikuskaritza. .... 26
     - 5.6.2. Zehapen araubidea .... 26
     - 5.6.3. Errekurtsoak .... 26

# I aurkibidea I


6. EKI ESTRATEGIA (ESKOLA-KIROL INKLUSIBOA) 27
6.1. Definizioa 27
6.2. Administrazio-arauak 27
6.3. EKI estrategia ezartzeko baliabideak 27
6.3.1. Aholkularitza zerbitzua ematea 27
6.3.2. EKI gida 28
6.3.3. Irakaskuntzarako laguntza-langileen kostuetarako dirulaguntza 28

**Jardueren eskaintza** 29

1. IKASTETXEEN BIDEZ GARATZEN DIREN KIROL-PROGRAMAK 29
1.1. Jolas Hezi programa 30
1.1.1. Definizioa 30
1.1.2. Administrazio-arauak 30
1.2. Multikirola programa 30
1.2.1. Definizioa 30
1.2.2. Administrazio-arauak 30
1.2.3. Kirol-topaketak antolatzeko oinarriak 30
1.3. “Eskola Kirol Egokitua” (EKE) programa 31
1.3.1. Definizioa 31
1.3.2. Administrazio-arauak 32
1.3.3. Jardueren eskaintza 32
1.4. Kirol-hastapeneko kanpaina 34
1.4.1. Definizioa 34
1.4.2. Administrazio-arauak 34
1.4.3. Jardueren eskaintza 34

2. NAGUSIKI KIROL-ERAKUNDEEN BIDEZ GARATZEN DIREN KIROL-PROGRAMAK 34
2.1. Kirol bakarreko hastapen-programa 34
2.1.1. Definizioa 34
2.1.2. Administrazio-arauak 35
2.1.3. Jardueren eskaintza 35
2.1.4. Erregelamenduak egokitzea 35
2.1.5. Programen osaera 36
2.1.6. Irakaskuntza-jarduerak antolatzeko oinarri orokorrak 36
2.1.7. Parte hartzeko lehiaketak antolatzeko oinarri orokorrak 37
2.1.8. Txapelketako arau orokorrak 39
2.2. Errendimenduan hasteko ibilbidea 41
2.2.1. Teknifikazio jarduerak 41
2.2.2. Errendimendu-hastapeneko lehiaketa-jarduerak 42
2.3. Kirol talentuak eta promesak hautemateko ibilbideko jarduerak 46
2.3.1. Teknifikazio jarduerak 46
2.3.2. Lehiaketa mugatuak 47

**Beste eranskin batzuk** 48

**II. eranskina.** Ikastetxeetan garatzen diren hastapen-programen laburpen-taula (Multikirola, Jolas Hezi, EKE eta Kirol Hastapeneko Kanpaina) 48
**III. eranskina.** Kirol-erakundeek nagusiki egiten dituzten kirol bakarreko hastapen-programen laburpen-taula 54
**IV. eranskina.** Eskola-adineko JFK programako jardueretan gertatzen diren gorabehera jakin batzuk konpontzeko prozedura 60
**V. eranskina.** Programatik kanpoko jarduera jakin batzuetarako baimenak emateko irizpideak (lizentzia federatua eta eremu geografikoa gainditzea eskola-aldian) 67
**VI. eranskina.** Dirulaguntzen araudia eta kirol sariak 82

El programa está pendiente de ser aprobado.
Mandarán

FA-KG-2024-0374 FORU AGINDUA, UZTAILAREN 29KOA, 2024-2025 IKASTURTERAKO ESKOLA-ADINEKO JARDUERA FISIKOKO ETA KIROLEKO JARDUEREN PROGRAMA ONESTEN DUENA.

# I. eranskina: Eskola-adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren programa 2025-2026rako

## HITZAURREA

Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legean eta Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan ezartzen denez, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio eskola adineko eskola-umeentzako jarduera fisikoaren eta kirolaren jardueren programa egitea, onestea eta gauzatzea.

Era berean, Eskola-kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak eskola-adineko kirolaren euskal ereduaren ezaugarri orokorrak ezartzen ditu.

Aurrekoaren arabera, eskola-adineko JFK programa egin da 2025-2026 ikasturterako.

### 2025-2026 ikasturteko eskola-kirolaren urteko programaren berrikuntzak

Eskola-kirolaren urteko programan honako berrikuntza hauek sartu dira, administrazio-izapideak errazteko eta araudiaren ulermena eta koherentzia errazteko, egungo testuingurua kontuan hartuta:

**a.** Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 19/2025 Epaia behin-behinean betearazteko autoak ondoriorik gabe uzten du klub batean parte hartu ahal izateko Multikirolean parte hartzeko betebeharra. Horrela, 2025-26 ikasturtean ez da nahitaezkoa ikastetxeko Multikirola programan parte hartzea benjamin eta alebinen kategorietan klub baten jardueran parte hartzeko.

**b.** 2025-2026 ikasturtean, Gipuzkoako Kirol Federazioek mugikortasunari eta zonakatzeari buruz aurkeztutako erreklamazioak kontuan hartuta — Gipuzkoako Batzar Nagusiek Lurralde Historikoko kirol-hastapenaren ereduari buruz egindako Ponentziaren esparruan aurkeztuak —, bai eta federazio batzuek 2025eko uztailaren 8an Kirolen Lurralde Kontseiluan aurkeztutako eta babestutako eskaerak ere, erabaki da zonakatze-irizpide berri bat txertatzea lehiaketaren eremu geografikoan, benjamin eta alebin kategoriei eragiten diena, eta urteko egutegia egituratzeko sistema berri bat ezartzea. Lehiaketaren eremu geografikoari aplikatu beharreko zonakatze-irizpide berriak honako hau ezartzen du: (1) Eskola-garaian, Kirol Bakarreko Hastapeneko Programan (parte hartzeko lehiaketa-ibilbidea), 2025-26 ikasturtetik aurrera, benjamin eta alebin kategorietarako, eskola-aldian lehiaketaren gehieneko esparrua Gipuzkoako Lurralde Historikoa izango da kirol-modalitate guztietarako aldez aurretikako baimenik gabe. (2) Eskola-garaian, Kirol Bakarreko Hastapeneko Programan, benjamin kategorian, kalitate-baldintzetan lehiatzeko eskubidea bermatu ezin den modalitateetan, lurralde-eremu hori gainditu ahal izango da, aldez aurretik administrazio-baimena emanda, eta; (3) Eskolarik gabeko aldian, kirol-modalitate guztiek Lurralde Historikoaren gehieneko eremua gainditzeko aukera izango dute, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldez aurreko baimenarekin. Urteko egutegia egituratzeko sistema berriari dagokionez: Eskola-aldiak eta eskolarik gabekoak ez dira egun zehatzen arabera bereiziko, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako urteko egutegiaren bidez baizik. Egutegi horretan eskola-asteak ezarriko dira, hau da, Multikirolako kirol-topaketen programazioa duten asteburuak, lehentasunezkoak izaten jarraituko dutenak. Beraz,

eskolarik gabeko denboralditzat hartuko dira programatutako Multikirolako kirol-topaketarik ez dauden aste guztiak.

**c.** Eskola-lizentzia digitala gehitzen da. Lizentziari buruzko informazioa denbora errealean ematen da, eta erakundeek edozein unetan eskuratu ahal izango dute, eskola-kirolaren aplikazioaren bidez. Intzidentzia duten parte-hartzaileek ez dute lizentziarik izango Gipuzkoako Foru Aldundiak ebatzi arte. IV. eranskinean, eskola-adineko JFK programaren jardueren garapenean gertatzen diren gorabehera jakin batzuk konpontzeko irizpide orokorrak jasotzen dira.

**d.** Baimena ematen zaie parte hartzen duten erakundeei inskripzioak ezarritako epetik kanpo egiteko, orain arte bezala Eskualdeko Kirol Bulegoaren bidez egin beharrik gabe. Hala ere, izapide horrek gorabehera bat sortuko du, eta Kirol Zuzendaritza Nagusiak ebatzi beharko du, IV. eranskinean adierazitako irizpideen arabera.

**e.** Gaitzen da arbitroak eskola-kirolaren aplikazioan inskribatzea.

**f.** Aseguruaren estalduren kudeaketa sartu da eskola-kirolaren aplikazioaren barruan, 2025eko martxoan abian jarritako probaldiaren balorazio positiboa egin ondoren.

**g.** Urteko programaren edukia aldatu da, laburragoa eta ulergarriagoa izan dadin. Horretarako, programa 4 ataletan banatzen da: (1) lehenengoan, programaren oinarriei buruzko informazioa jasotzen da; (2) bigarren atala parte hartzeko irizpide orokorrei buruzkoa da, parte-hartzaileek eta jarduerak garatzen dituzten erakundeek bete beharreko baldintzei buruzko informazioa barne; (3) hirugarren atalean, jardueren eskaintzari buruzko informazioa ematen da, eta eskaintza horiek antolatzen dituzten erakundeen arabera sailkatzen da (ikastetxeak eta kirol-erakundeak); (4) laugarren eta azken atalean, hainbat eranskin jasotzen dira. Azken eranskin horiek honako hauei buruzko informazioa biltzen dute: izena emateko epeak; programa bakoitzaren laburpen-taula; programaren jardueren garapenean gertatzen diren gorabehera jakin batzuk ebazteko prozedura eta irizpideak; eta programatik kanpoko jardueretarako baimenak emateko irizpideak, hala nola lizentzia federatua eta eskola-aldian aurrez ezarritako lurralde-eremua gainditzea. Adierazitako irizpideak betetzen dituzten kasuistikek ez dute erakunde interesdunaren baimen gehigarririk beharko. Lurralde-federazioek beren komunikazio-kanalen eta/edo lehiaketa-erregelamenduen bidez eman beharko diete informazio hori kirol-erakunde interesdunei.

**h.** Eskola-adineko JFK urteko programaren barruan sartzen dira orain arte hauek arautako modalitateak, benjamin eta alebin kategorietan: «FA-KG-2024-0213 Foru Agindua, maiatzaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legera aldatu eta egokitzen duena; eta 40-133/2021 Foru Agindua, ekainaren 29koa, zeinaren bidez onartzen baitira eskola-umeen kirol-hastapenetako unitateak baimentzeko araubide orokorra eta saskibaloiaren, eskubaloiaren, futbolaren eta errugbiaren modalitateetako hastapen-unitateen araubide espezifikoa». Ildo horretan, saskibaloiko, eskubaloiko, futboleko eta errugbiko kirol-klub eta -elkarteek benjamin eta alebinen kategorietan egiten duten jarduera Kirol Bakarreko Hastapen Programaren barruan sartzen da. Beraz, eskola-kirolaren programan parte hartu nahi duten kirol-klubek eta -elkarteek ez dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurretiazko administrazio-baimenik beharko. Hau da, 2025-26 ikasturtetik aurrera, ikasturte-hasieran erakunde horiek ez dute baimenik eskatu beharko kirol-hastapeneko unitatea (kirol-eskola) sortzeko edo luzatzeko. Horrela, bada, benjamin eta alebin kategorietako kirol-klub edo -elkarteek eskola-kiroleko aplikazioan izena eman beharko dute soilik “parte-hartze programako lehiaketa” ibilbidearen barruan. Inskribatutako eskola-umeek dagokien eskola-lizentzia izango dute. Hala ere, udalak berretsi egin beharko ditu eskola-kirolaren aplikazioan talde bakoitzarentzat adierazten diren entrenamendu-egunak eta -orduak, parte-hartzaileak inskribatu ahal izateko.

**i.** Erakundeek irailaren 1etik aurrera hasi ahal izango dituzte beren irakaskuntza-jarduerak (asteroko entrenamenduak), aldez aurretik parte-hartzaileek eskola-kirolaren aplikazioan izena eman ondoren.

**j.** Multikirola Programak lortu nahi dituen helburuekin eta ikastetxeen tokiko eskaintzei buruzko egungo egoerarekin bat etorriz, Multikirola Programa parte hartzeko ibilbideko hastapeneko jardueren barruan sartu da. Bestalde, kirol kolektibo bakoitzean gehienez egin daitezkeen jardunaldien kopurua 12tik 9ra murriztu da.

**k.** Kirol-hastapeneko kanpainari dagokionez, jardueren eskaintza bertsio digitalean baino ez da argitaratzen. Hau da, ikastetxeek ez dute jasoko ikasturtearen hasieran urteko programarekin batera banatzen zen jarduera-eskaintzaren dokumentu fisikoa. Hala ere, urteko programarekin batera banatzen den laburpen-taulak kirol-hastapeneko kanpainako jardueren eskaintzari buruzko informazioa jasotzen du, bai eta haren bertsio digitalera sartzeko esteka ere.

**l.** Benjamin aurreko kategoriarako jarduerak, judoaren, gimnastikaren eta patinajearen modalitateetan, orain arte Kirol Hastapeneko Kanpainan sartuta zeudenak, Kirol Bakarreko Hastapeneko Programaren barruan kokatzen dira, orain arte bezala, modalitate aberasgarriak direlako garapen psikomotorerako eta ingurunera egokitzeko. Urtebeteko iraupena duten jarduerak dira, eta kirol-klubek edo -elkarteek garatzen dituzte nagusiki. Nolanahi ere, benjaminaurreko kategorian, oinarrizko trebetasun motorrak garatzeko jarduerak baino ezin izango dira egin, Jolas Hezi Programaren printzipioekin bat etorriz.

**m.** Futboleko eta esku-pilotako modalitateen errendimenduan hasteko ibilbideko inskripzioak, lehen federazioen aplikatiboen bidez egiten zirenak, Kirol Dataren bidez izapidetuko dira 2025-2026 ikasturtetik aurrera.

**n.** Lurralde-federazioekin Hastapeneko Kirol Bakarreko Programaren irakaskuntzak arautzeko azken ikasturteetan lortutako akordioei jarraipena emanez, 2025-26 ikasturtean izotzaren gaineko patinaje artistikoaren diziplina gehitu zaie.

**o.** Emakumeen futbolean eta boleibolean masa kritikoa handitu denez, errendimendu-hastapeneko lehiaketa sartu da futbolean bigarren urteko alebin kategorian eta boleibolean infantil eta kadete kategorietan.

**p.** Mendi lehiaketako inskripzioak, bai eta dagokion dirulaguntzaren eskabidea ere, erakunde antolatzailearen bidez egingo dira (ikastetxea, kluba edo kirol-elkartea).

**q.** Erakundeek babes-ordezkariaren izena eta kontaktua sartu beharko dituzte eskola-kirolaren aplikazioan.

**r.** Infantil kategorian, xare, zesta-punta, joko garbi eta paleta pilotako diziplinak partaidetza-ibilbidearen barruan kokatzen dira (ez errendimendu-hastapeneko ibilbidean).

**s.** Pilota-paletan kadete kategoria kentzen da Kirol Bakarreko Hastapen Programaren eskaintzatik, ez dagoelako partaidetzarik aipatutako kategorian.

**t.** Boleibolean “hartubola” sartzen da benjamin eta alebin kategorietarako hastapen-kanpainan.

**u.** Eskola-kirolaren aplikazioan partaideak inskribatu ahal izateko, nahitaezkoa izango da eskola-umeen argazkia infantil eta kadete kategorietan «Parte-hartzeko lehiaketa ibilbidean» eta «Errendimenduko lehiaketa ibilbidean.

**v.** 2025-26 ikasturtetik aurrera eskualdeko kirol-bulegoen bidez ematen zen zerbitzua Kirol Laguntza Bulegoak (KLB) emango du.

## 2024-25 ikasturteko eskola-kiroleko eskaeren bilakaera

Eskola Kirolaren Programa proiektu komunitario partekatu bat da, duela 30 urte baino gehiago 180 ikastetxek eta guraso-elkartek baino gehiagok, 40 federaziok baino gehiagok, 80 udalek baino gehiagok, 200 koordinatzaile pedagogiko eta/edo operatibo inguruk eta 451 oinarrizko klubek egina. Guztien artean ekosistema bat osatzen da, zeinak 8.000 talde eta 3.200 monitore eta entrenatzaile baino gehiago hartzen baititu denboraldi bakoitzean.

2024-25 ikasturtean, antolaketa-sare konplexu horrek eragin du ia 50.000 eskola-umek parte hartzea eta 95.000 izen-emate izatea. Zehazki, zertxobait handitu da Jolas Hezi Programako parte-hartzea (% 37 neskak). Multikirola Programan parte hartzeak bere horretan jarraitzen du (17.121 eskola-ume, % 39 neskak), eta matrikulatutako eskola-umeen % 60 inguruk parte hartu du. Hala ere, bi programetan genero-arrakala oraindik ere erronka bat da.

Parte hartzeko lehiaketetan, parte-hartzea % 6 murriztu da aurreko ikasturtearekin alderatuta, eta mutilen parte-hartzea % 9 jaitsi da.

Hastapen-unitateei dagokienez (kirol-eskolak), guztira 10.464 eskola-umek parte hartu dute futbolean, saskibaloian, eskubaloian eta errugbian, eta % 4 igo da nesken parte-hartzea. Eskola-umeen kopuruak gora egin du modalitate guztietan, saskibaloian izan ezik, nesken parte-hartzea % 20 jaitsi baita.

Nabarmentzekoa da 2024-2025 ikasturtean EKE Programan 6 eta 21 urte bitarteko dibertsitate funtzionala duten 282 eskola-umek parte hartu dutela 40 taldetan, modu egokituan.

Eskola Kirol Inklusiboaren Estrategiari (EKI) dagokionez, 2024-25 ikasturtean 175 EKI taldek parte hartu dute, gutxienez, dibertsitate funtzionala duen eskola-ume batekin, bere kideekin batera, modu inklusiboan, eta horietatik 113 taldek begirale laguntzaile batekin egin dute.

Horrela, bada, 6-21 urteko gipuzkoar guztien % 2k desgaitasun aitortu bat du. Kolektibo horren heren batek baino gehiagok, % 37 inguruk, beren beharretara egokitutako programa aktibo eta erregularretan parte hartu du, eskola-kirolaren esparruko jarduera-politika horiei esker.

## EKI estrategia eta EKE programa

Azken urteotan, Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat dirulaguntza-lerro garatu ditu, eta, praktikan, baliagarriak izan dira dibertsitate funtzionala duten eskola-umeen behar espezifikoei erantzuteko sare bat finkatzeko, bai ikastetxeko erreferentziazko taldeetan (Eskola Kirol Inklusiboa - EKI), bai dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako talde espezifikoetan (Eskola Kirol Egokitua - EKE); azken hori praktika inklusibo bat eskaintzea ezinezkoa den kasuetan soilik.

Horri dagokionez, gaineratu behar da hainbat udalerrik sartu dutela Eskola Kirol Egokituaren (EKE) eskaintza ohiko eskola-adineko JFK jardueren programaren barruan, eta, horrela, programa hori normalizatzea eta hezkuntza-eragileen artean zabaltzea erraztu dela.

Ildo horretan, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzari esker, EKI gida gauzatu da. Gidak tresna erabilgarria izan nahi du kontzientzia hartzeko eta inklusiorako bidean lagunduko diguten ezagutza jakin batzuk eskuratzeko. Hala, helburua da tresna egokia izatea kirola inklusiboagoa, hezitzaileagoa eta kolaboratiboagoa izan dadin eskola-adinean eremu bakoitzaren barruan, eta bizikidetza hobetzen lagunduko duten balioak transmititu ahal izan ditzan.

## Adingabeen ongizatea eskola-adineko JFK esparruan

Haurrak eta Nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoari dagokionez (aurrerantzean, HNIOBL) eta Haur eta Nerabeei buruzko otsailaren 15eko 2/2024 Legeari dagokienez, 2022-2023 ikasturtetik aurrera, administrazio publikoek beharrezkoak diren tresnak prestatu dituzte kirol-arloan adingabeekin lan egiten duten erakundeei esleitutako betebeharrak betetzeko, ingurune seguruak eraikitze aldera, hala nola (1) babes-ordezkaria izendatzea; (2) sentsibilizazio-prestakuntzak eta protokoloaren erabilera; (3) protokolo bat abian jartzea, eta (4) monitorizazio-sistema bat ezartzea. Hori guztia aholkularitza-zerbitzuekin eta komunikazio-kanpainekin batera, aipatutako legeak bete ahal izateko.

Erakundeek eskola-kirolaren aplikazioan entitatea babesteko ordezkariari buruzko informazioa eman beharko dute.

Gainera, 2025-26 ikasturtean diagnostiko bat egingo da Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko lege organikoa (LOPIVI) Gipuzkoako eskola-adineko KJFren programan nola ezarri den jakiteko, eta, horretarako, babes-ordezkariek, teknikariek, familiek eta eskola-umeek berek parte hartu beharko dute.

## Euskal Autonomia Erkidegoan Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari buruzko Legea

8/2022 Legeak, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoak, jasotzen dituen lanbide-kualifikazioak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera eskatuko dira.

Lege honek jasotzen dituen JFK eremuko lau lanbideetatik hiruk eskola-kirolaren eremuari eragiten diote, hau da: kirol-monitorea, dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako entrenatzailea eta kirol-zuzendaria.

# ESKOLA-ADINEKO JFK PROGRAMAREN OINARRIAK

## 1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESKOLA-ADINEKO JFK PROGRAMAREN OINARRIAK

2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena buruzkoak, dioenari jarraikiz, eskola-adineko jarduera fisikoa eta kirola, ahal dela, kirol anitzekoa izango da, eta ez soilik lehiara bideratua, eskola-ume guztiek jarduera fisikoa eta kirola beren borondatearen, gaitasun fisikoaren eta adinaren arabera ezagutzea eta egitea bermatzeko.

Eskola-adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren etapak hiru etapatan sailkatzen dira, honako funtzio eta ezaugarri hauekin:

**a.** Haur Hezkuntzako etapa: haurrak jaiotzen direnetik 6 urte bete arte artatzen dituen etapa. Etapa honetan, jarduera fisikoa eta jolas librea bermatuko dira, garapen integral eta harmonikorako eta gorputz-mugimendua gozamenarekin bizitzeko jarduera ludiko-motorrak ahalbidetzeko.

**b.** Lehen Hezkuntzako etapa: 6 eta 12 urte bitarteko eskola-umeak biltzen dituen etapa. Etapa honetan, jarduera fisiko ludikoa eta kirol anitzekoa bermatuko da. Adin-tarte horretan, lehiaketak eta entrenamenduak egin ahal izango dira antolatutako jardueretan, baina beti modu osagarrian, eta ez eskola-adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren osagarri gisa.

**c.** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapa: 12 eta 16 urte bitarteko eskola-umeak. Etapa honetan, kirolean parte hartzeko, errendimenduari ekiteko eta talentuak eta promesak identifikatzeko ibilbideei dagozkien jarduerak partekatu ahal izango dira.

Administrazio publikoek arreta emango diete kirol federatuaren antolamendutik kanpo geratzen den azken hezkuntza-etapa horretakoei, haien beharrizanekin bat datozen programa espezifikoak garatuz eta tokiko jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak sustatzen dituzten taldeak sustatuz.

Eskola-adineko JFK hastapen-etapa batez ere ikastetxearen testuinguruan garatuko da, haren egoera pertsonala edo soziala edozein dela ere, biztanleria horren interes gorena babesteko. Ikastetxeak kirol-hastapenaren ardatz egituratzaile bihurtuko dira. Kirol-hastapen hori funtsean hezigarria izango da.

Eskola-adineko JFK programak urtero onartuko dituzte lurralde historikoetako foru-organoek, eta helburu hauek izango dituzte: prestakuntza integrala ematea, nortasuna harmonikoki garatzea, eta ondorengo adinetan jarduera fisikoa eta kirola etengabe egitea ahalbidetuko duten baldintza fisikoak eta osasun-baldintzak lortzea.

## 2. GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ESKOLA-ADINEKO JFK PROGRAMAREN OINARRIAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak kirol-hastapeneko eredu bat proposatzen du, eskola-adineko JFAren araudi autonomikoarekin bat. Gainera, eskura dagoen ebidentzia zientifikorik onenari, nazioarteko adostasunei eta 30 urtetik gorako esperientziaren ondoriozko ezagutzari erantzuten zaie. Ereduaren oinarriak webgune honetan argitaratzen dira: https:// kirolak.gipuzkoa.eus

Beraz, zenbait neurri hartu dira eskola-adineko JFK programaren hezkuntza-printzipioa bermatzeko, eta, horrela, jarraipena eman zaio 2017an egindako hausnarketa-prozesuari, zeinean Gipuzkoako eskola-adineko kirol-eragileek parte hartu baitzuten. Adostutako neurrien artean, nabarmentzekoa da ikastetxea jardueren ardatz gisa kokatzea, eskola-adineko herritarren interes gorena babesteko.

Bereziki, Multikirola Programa aipatu behar da, ikastetxearen kirol anitzeko eskaintza. Programa hori testuinguru egokitzat jotzen da eskola-adineko kirol parte-hartzailea eta ekitatiboa lortzeko, eskola-ume guztiei kirol-jarduerarako sarbidea bermatuko diena. Literatura zientifikoak adierazten duenez, kirol anitzeko praktika batek, non prozesua emaitzaren gainetik lehenesten baita hastapeneko adinetan, onurak dakartza eskola-umeen garapen integralean, osasunean, kirol-ohituretan eta kirol-errendimenduan. Talentua garatzeko, garrantzitsua da, halaber, hasierako fase bat, askotariko esperientziak barne hartzen dituena, non kirol-emaitza baztertzen baita. Pazientzia kirol-hastapenean, eskola-umeei beren adinerako egokiak diren jardueretan prestatzen eta dibertitzen utzi hezkuntza-testuinguru hurbilean, hau da, ikastetxean.

Ildo horretan, foru-erakundeak neurriak hartzen ditu kirol-aniztasuna sustatzeko eta hasierako adinetan espezializazio goiztiarrak eta erakarpen goiztiarrak eragindako arriskuak saihesteko, adingabeen interesak eta premiak eta ondorengo adinetan modu jarraituan praktikatzea defendatuko dituen praktika bat zaintzeko, Eskola Kirolari buruzko 66/2022 Mozioan Gipuzkoako Batzar Nagusiek eskatuta.

Horrela, bada, hasierako adinetan ikastetxean kirol anitzeko hastapen bat bermatzeko, autonomia-erkidegoko araudiak ezartzen duen bezala, neurriak aplikatu izan dira pixkanaka Kirol Bakarreko Hastapen Programako jardueretan eta Errendimendu-hastapeneko Lehiaketetan benjamin eta alebin kategorietan. Honako hauekin lotutako irizpideei erantzuten diete neurriek: muga geografikoa, asteko entrenamendu-kopuruaren muga, asteburuko lanaldien kopuruaren muga eta kirol-modalitate batean hasteko adina. Irizpide horiek ezartzeko, eskola-kirolari buruz indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen mugak eta printzipioak hartu dira erreferentziatzat, baita literatura zientifikotik eratorritako ezagutza ere.

Helburu berarekin, 2025-26 ikasturtean jarraipena emango zaio 2017-18 ikasturtean hasitako ikuskapen-lanari. Lan horren azken helburua da eskola-adineko kirolaren arloan indarrean dagoen araudiaren ez-betetzeak saihesten eta/edo zuzentzen saiatzea.

Ildo beretik, Arartekoaren urriaren 27ko 6/2011 gomendio orokorrarekin bat etorriz, eskola-kirola une eta testuinguru guztietan eta hezkuntza-parametroen arabera gara dadin, Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromisoa hartu du programa honetako jarduerak egiten parte hartzen duten erakundeek eta langileek modu egokian jokatzen dutela berma dadin parte hartzen duten eskola-umeekiko tratuan, prestakuntza-giro positiboa sor dadin bultzatuz eta, beraz, eragotziz eskola-jarduera haien hezkuntza-orientaziotik urruntzen duten larderiazko jokabideak, umiliagarriak edo iraingarriak agertzea.

Hurrengo irudian, Gipuzkoako Eskola Kirolaren Eredua laburbiltzen da.

# GIPUZKOAKO ESKOLA KIROLAREN EREDUA

ETAPAK ETA IBILBIDEAK



# KIROL IBILBIDEAK ETA JARDUERAK

## 1. KIROL-IBILBIDE MOTAK

Gipuzkoako eskola-kirolaren programak 3 kirol-ibilbide ditu:

### 1.1. KIROLEAN PARTE HARTZEKO IBILBIDEA

Kirolean parte hartzeko ibilbidearen helburu nagusia da haurrek eta nerabeek JFK egitea, hainbat kirol-modalitate ezagutzea eta kirol-ohitura eta bizimodu osasungarri bat hartzea. Era berean, oinarrizko kirol-jarduera antolatu, irisgarri eta ekitatibo bat bermatu nahi zaie Lehen Hezkuntzako eskola-ume guztiei, haien bizi-baldintzatzaileak edozein direla ere.

Beraz, horrelako programek kirol-eskaintza egokia bermatuko dute, ibilbidearen ezaugarrien barruan (aurrerapena, hobekuntza eta aisialdia) jarduera fisikoa eta kirol-jarduera egin nahi duten eskola-umeek kirola egiten jarrai dezaten.

Kirolean parte hartzeko ibilbidean honako jarduera hauek sartzen dira:

**a.** Hasiera jarduerak. Hiru motatakoak izan daitezke:
- Oinarrizko trebetasun motorrak garatzeko jarduerak
- Kirol bakarrekoak
- Kirol-topaketak

**b.** Partaidetzako lehiaketak.

Parte hartzeko lehiaketetan parte hartzeko gutxieneko adina, kirol-modalitate guztietan, alebin kategoriako lehen urteari dagokiona izango da. Eta ibilbide horretako gainerako jardueretan parte hartzeko gutxieneko adina benjamin kategoriako lehen urteari dagokiona izango da.

Salbuespen gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiak adin hori bete ez duten eskola-umeen parte-hartzea baimendu ahal izango du, Eskolako Kirolaren Euskal Batzordeak aldeko txostena egin ondoren.

Hala ere, zenbait modalitatek tratamendu berezia eska dezakete, ingurunera egokitzeko jarduerak edo garapen psikomotorrerako ezin hobeak direla uste delako. Bi talde handi bereizten dira:

**a.** Ingurunera egokitzeko modalitateak: kirol modalitate espezifiko bat egiten hasi aurretiko jarduerak dira, ohikoak ez diren inguruneetan, uretan eta izotzetan adibidez, moldatu ahal izateko beharrezkoak diren oinarrizko trebetasunak eskuratzeko. Atal honetan sartzen dira patinajeko, skateko eta igeriketako diziplinak.

**b.** Garapen psikomotorreko modalitateak: oinarrizko mugimendu trebetasun jakin batzuk eskuratzera eta egokitzera bideratutako jarduerak dira, kirol modalitate edo diziplina bakoitzaren gaitasun espezifikoak garatzeko aldez aurreko eta ezinbesteko urratsa baitira. Atal honetan gimnasia, judo eta mendizaletasuna eta Jolas Hezi programa sartzen dira.

Modalitate horietan hasteko gutxieneko adina benjaminaurreko kategoriako lehen urtean ezartzen da. Nolanahi ere, benjaminaurreko kategorian, oinarrizko trebetasun motorrak garatzeko jarduerak baino ezin izango dira egin. Adin-tarte horretan garatu beharreko jardueren hezkuntza-oinarria

finkatzeko, benjaminaurreko kategorian Jolas Hezi programak jasotzen dituen helburu eta edukien arabera garatu beharko dira jarduerak. Astean 1 edo 2 irakaskuntza-saio egin ahal izango dira.

## 1.2. ERRENDIMENDUAN HASTEKO IBILBIDEA

Errendimenduan hasteko ibilbidearen helburua honako hau da: partaidetza-kupoetan sartzen diren eta hala nahi duten haur eta nerabeei kirol-errendimendua lortzea eta kirol-helburuak gainditzea helburu duen kirol-jarduera egiten hastea.

Errendimenduan hasteko ibilbidean honako jarduera hauek sartzen dira:

**a.** Detekzio-jarduerak.
**b.** Teknifikazio jarduerak.
**c.** Errendimenduan hasteko lehiaketak.

Arau orokor gisa, errendimenduan hasteko ibilbide honetako jardueretan parte hartzeko gutxieneko adina alebin kategoriako lehen urteari dagokiona da detekzio-jardueretarako, eta alebin kategoriako bigarren urteari dagokiona gainerako jardueretarako.

Oro har, ezartzen da Gipuzkoan errendimenduan hasteko ibilbidean parte hartuko dutenen gehieneko kopurua alebin kategoriako bigarren urteko adinari dagokion biztanleria osoaren % 20 izango dela, eta haurren kategoriako urte bakoitzari dagokion biztanleria osoaren % 25. Ehuneko horiek modu bereizian aplikatuko zaizkio sexu bakoitzari.

## 1.3. KIROL TALENTUAK ETA PROMESAK IDENTIFIKATZEKO IBILBIDEA

Kirol talentuak eta promesak hautemateko ibilbidearen helburu nagusia da haien gaitasun eta jokamoldeengatik balizko talentu eta promesatzat jo daitezkeen eskola-umeak hautematea, aukeratzea eta garatzea, detekzio jarduerak, teknifikazio jarduerak eta lehiaketa mugatuak eginez.

En el itinerario de identificación de talentos se incluyen las siguientes actividades:

**a.** Detekzio-jarduerak.
**b.** Teknifikazio jarduerak.
**c.** Lehiaketa mugatuak.

Arau orokor gisa, horrelako programetan parte hartzeko gutxieneko adina alebin kategoriako lehen urteari dagokiona da detekzio-jardueretarako, eta alebin kategoriako bigarren urteari dagokiona gainerako jardueretarako.

Oro har, ezartzen da kategoria bakoitzean talentuak detektatzeko eta prestatzeko ibilbidean parte hartzen dutenen gehieneko kopurua ez dela izango modalitate horretako errendimenduan hasteko ibilbidean parte hartzen duten guztien % 20 baino handiagoa, edo, halakorik ezean, parte hartzeko ibilbidean parte hartzen dutenena baino handiagoa. Ehuneko horiek modu bereizian aplikatuko zaizkio sexu bakoitzari.

Errendimenduan hasteko ibilbidean eta talentuak hautemateko eta prestatzeko ibilbidean ezarritako ehunekoak ezin dira metatu. Nolanahi ere, bi ibilbideetan parte hartzen dutenen guztizko kopurua ezingo da izan kategoria horri dagokion biztanleria osoaren % 25 baino handiagoa.

# 2. KIROL-JARDUERA MOTAK

Kirol-ibilbideen barruan, jarduera-mota hauek eskaini ahal izango dira:

## 2.1. IRAKASKUNTZAKO JARDUERAK

Lehiaketetan parte hartzeari lotuta ez dauden kirol-prestakuntzako jarduerak dira. Jarduera horiek izan daitezke:

a. **Hastapena**: Kirol modalitateak irakasteko jarduerak dira, bertan parte hartu nahi duten eskola umeei zuzenduta. Uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan deskribatutako kirol-hastapeneko jarduerak, Gipuzkoan, mota hauetan katalogatzen dira:

a.1 **Oinarrizko trebetasun motorrak garatzea**: Kirol-modalitate jakin bati lotuta ez dauden jarduerak dira. Ezinbestekoak dira eskola-umeen oinarrizko garapen motorrerako, garapen egokia eta eskola-umeek kirol-praktika fisikoarekiko duten atxikimendua bermatuko duten trebetasunak lortzeko. Jarduera horiek ingurunera egokitzeko edo garapen psikomotorrerako jarduerak ere biltzen dituzte.

a.2 **Kirol bakarrekoa**: Dagokion kirol-modalitate edo -diziplina bati dagozkion trebetasun espezifikoak eskuratzeko eta garatzeko jarduerak dira.

a.3 **Kirol-topaketak**: Jarduera horiek, lehiaketa arautuak izan gabe, bi talde edo gehiago aurrez aurre jarri ahal izango dituzte, eta nahitaez ez dute sailkapen edo sari publikorik egingo, eta eskola-umeen ezaugarrietara egokitutako erregelamendu malgu eta espezifikoak ezarriko dira.

b. **Teknifikazioa**: Entrenamendu saioak dira, errendimenduan hasteko ibilbidean parte hartzen dutenei eta kirol talentuak eta promesak hautemateko ibilbidean aukeratutako eskola-umeei zuzenduak, haien kirol gaitasuna hobetzeari begira.

## 2.2. LEHIAKETA-JARDUERAK

Lehiaketa-jarduerak izan daitezke:

a. **Parte-hartzea**: Hautapen eskema hutsetik kanpo egiten diren kirol lehiaketak dira.

b. **Errendimenduan hastea**: Errendimenduan eta kirol-helburuak gainditzean ardaztutako kirol-praktikaren hastapena erraztea helburu duten kirol-lehiaketak dira.

c. **Mugatuak**: Jarrera eta gaitasun erreal eta potentzialagatik identifikatzen eta hautatzen diren gazteei mugatzen diren kirol-lehiaketa dira.

## 2.3. DETEKZIO-JARDUERAK

Saio gutxiko jarduerak dira, eta helburu dute jakitea ea baden kirol-modalitate batean errendimendua lortzeko gaitasun eta jarrera jakin batzuk dituen eskola-umerik. Horretarako, haur guztien ohiko kirol-jardueraren behaketa edo kontrol tekniko hutsa egiten da.

## 2.4. IBILBIDEKO JARDUERETAN HASTEKO ADINAREN LABURPENA

Hurrengo taulan, ibilbide bakoitzean sartzen diren jardueren laburpena eta dagokion hasiera-adina jasotzen dira.

| Ibilbidea | Jarduera | Azpi-jarduera | Benjaminau-rrekoak | Benjaminak | Alebin 1. urtea. | Alebin 2. urtea. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Parte hartzeko ibilbidea** | Hasiera jarduerak | Oinarrizko trebetasun motorrak garatzea | ✓ | | | |
| | | Kirol bakarrekoak | | ✓ | | |
| | | Kirol-topaketak | | | | |
| | Partaidetzako lehiaketak | | | | ✓ | |
| **Errendimenduan hasteko ibilbidea** | Detekzio-jarduerak | | | | ✓ | |
| | Teknifikazio-jarduerak | | | | | ✓ |
| | Errendimenduan hasteko lehiaketak | | | | | ✓ |
| **Kirol talentuak eta promesak identifikatzeko ibilbidea** | Detekzio-jarduerak | | | | ✓ | |
| | Teknifikazio-jarduerak | | | | | ✓ |
| | Lehiaketa mugatuak | | | | | ✓ |

# PARTE HARTZEKO IRIZPIDE OROKORRAK

## 1. NORK HAR DEZAKE PARTE?

### 1.1. GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN MATRIKULATUTAKO ESKOLA-UMEAK

Indarreko ikasturtean Gipuzkoako Lurralde Historikoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeren batean matrikulatzen diren eskola-ume guztiek parte hartu ahal izango dute eskola-adineko KJFren urteko programa honetan jasotzen diren jardueretan (ezohiko egoeretan izan ezik, kasu horietan Kirol Zuzendaritza Nagusiaren baimena beharko baita).

### 1.2. GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN MATRIKULATUTA EZ DAUDEN ESKOLA-UMEAK

Gipuzkoako eskola-adineko JKF programan parte hartzeko Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpoko eskola-umeei edo erakundeei baimena emateko irizpide orokorren helburua da kirol-lehiaketa/-praktika bat bermatzea, parte-hartzaileen kirol-progresio egokia ahalbidetzeko.

Kasu horietan, Kirol Zuzendaritza Nagusiaren berariazko baimena beharko da, eskola-kiroleko programak garatzeko baimenak emateko prozedura arautzen duen abuztuaren 19ko 145/2009 Foru Aginduan oinarrituta. Kasuaren arabera, hauek dira izapidetu beharko diren baimen-eskaerak:

- **a.** **Euskal Autonomia Erkidegoko ez beste lurralde historikoetako eskola-umeak:** Erakunde interesdunak baimen telematikoaren eskaera hau izapidetu beharko du, eta dagokion lurralde historikoko foru-erakundearen baimena erantsi beharko du: “2.3 Gipuzkoan eskola-kiroleko jardueretan edo txapelketetan parte hartzea”.
- **b.** **Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko eskola-umeak:** Erakunde interesdunak baimen telematikoaren eskaera izapidetu beharko du, eta, bertan, dagokion eskola-umearen eskolatze-ziurtagiria aurkeztu beharko du, dagokion ikastetxeko zuzendaritzak sinatuta: “Egoera berezietako hainbat jarduera”.
- **c.** **Beste lurralde batzuetako kirol-erakundeak:** Erakunde interesdunak baimen telematikoaren eskaera hau izapidetu beharko du, eta, bertan, Gipuzkoako federazioaren eta bere lurraldeko federazioaren oniritzia jasotzen duen ziurtagiri bat aurkeztu beharko du: “Egoera berezietako hainbat jarduera”.

Eskabidea Kirol Zuzendaritza Nagusiak baimendu badu, dagokion erakundeak harremanetan jarri beharko du Kirol Laguntza Bulegoarekin (KLB), eskola-umeak eskola-kirolaren aplikazioan inskribatzeko izapideak egiteko.

Beste lurralde bateko eskola-ume edo erakundeei baimena emateko irizpide orokorrak honako hauek dira:

- **a.** Baimena ematen da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren mugakidea den eta dagokion modalitateko eskaintzarik ez duen udalerri batean bizi den eskola-ume batek parte hartzeko.

Kasu horretan, bizi den edo eskolatuta dagoen udalerritik hurbilen dagoen udalerrian parte hartuko du.

**b.** Baimena ematen da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren mugakide den lurralde bateko eskola-ume batek edo erakunde batek modalitate minoritario bateko Kirol Bakarreko Hastapen Programan parte hartzeko, bere lurraldean lehiaketa bat antolatzeko gutxieneko talde kopuru bat ez izateagatik. Nolanahi ere, kasuan kasuko federazioen oniritzia izan beharko du.

**c.** Baimena ematen da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren mugakidea den eta hurbiltasun-arrazoiengatik dagokion modalitateko Gipuzkoako Lurralde Federazioari atxikita dagoen eskola-ume batek edo lurralde horretako erakunde batek parte hartzeko.

Hala ere, eskola-garaian, joan-etorriak saihesteko eta hasierako adinetan ingurune hurbilenean kirola egitea sustatzeko, b) eta c) kasuetan, jardueraren eremu geografikoa salbuespenez gainditzea baimentzen da alebin kategoriatik aurrera, Eskola Kirolari buruzko 125/2008 Dekretuaren 5.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

## 2. ESKOLA-KIROLARI BURUZ INDARREAN DAGOEN ARAUDIAREKIN BAT DATORREN KIROL-HASTAPENA BABESTEKO IRIZPIDEAK

Eskola-kirolaren araudi autonomikoak jasotzen dituen printzipioekin bat datorren kirol-hastapena zaintzeko, hainbat irizpide orokor ezartzen dira. Era berean, irizpide horien helburua da kirol-ohituretan, garapen integralean, kirol-errendimenduan eta eskola-umeen osasunean eragin positiboa izango duen kirol-jarduera bat bermatzea. Gainera, beharrezkotzat jotzen dira eskola-umeen espezializazio goiztiarraren eta trebakuntza goiztiarraren ondoriozko arriskuak saihesteko.

Jarraian adierazten diren irizpideak alebin kategoriaraino (hori barne) aplikatuko dira.

### 2.1. HASIERAKO ADINETAN KIROL ANITZEKO PRAKTIKA BAT SUSTATZEA

Prozesua emaitzaren gainetik lehenetsiko duen eta lehiaketara soilik bideratuta egongo ez den multikiroleko jarduera bat bermatzeko, lehentasuna ematen zaie ikastetxeko Jolas Hezi programari eta Kirol anitzeko programari. Beraz, urteko programan jasotako gainerako jarduerek ezin izango dituzte oztopatu aipatutako programetako jarduerak. Helburu berarekin, emaitzen eta sailkapenen argitalpena alebin kategoriaraino atzeratzen da Kirol Bakarreko Hastapen Programako jardueretan.

Ildo beretik, ingurune hurbilean eta hezkuntza-ingurunean erreferentzia-taldearekin batera ikasturtean zehar hainbat kirol ikasteko aukera emango duen praktika bat bermatzeko, beharrezkotzat jotzen da zenbait muga ezartzea kirol-klubek eta -elkarteek nagusiki alebin kategoriara arte (hori barne) egiten dituzten kirol bakarreko jarduerei. Muga horiek modalitate batean hasteko adinarekin, entrenamendu-saioen kopuruarekin eta lehiaketa-jardunaldien edo kirol-partiden kopuruarekin lotutako irizpideei erantzuten diete. Era berean, irizpide horien helburua da eskola-umeen familia-kontziliazioa eta atsedena erraztea. III. eranskinean jasotzen dira modalitate bakoitzerako federazioekin adostutako irizpideak.

## 2.2. ESKOLA-UMEEK ADINAREN ARABERA DAGOKIEN KATEGORIAN PARTE HARTZEA

Kirol-heltze prozesu naturalak babesteko, oro har, ez da onartuko kategoria aldatzea. Arau hau zorrotz aplikatuko da benjamin eta alebin kategorietan. Arrazoi teknikoak, medikoak eta hezkuntzakoak aldi berean gertatzen direnean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritza Nagusiak baimena eman ahal izango du aldaketa hori, banaka eta salbuespen gisa. Kategoria-aldaketako salbuespenezko egoerak ebazteko irizpideak IV. eta V. eranskinetan jasotzen dira.

## 2.3. ESKOLA-UMEEK BIZI DIREN EDO ESKOLATUTA DAUDEN LEKUAN PARTE HARTZEA

2/2023 Legeak, otsailaren 20koak, arau-hauste eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duenak, ezartzen duen bezala, foru-agindu honen bidez arautzen diren kirol bakarreko hastapen-programetako jardueretan eta errendimenduan hasteko lehiaketetan parte hartzen duten benjamin eta alebin kategorietako eskola-umeek bizi diren udalerrian edo, hala badagokio, eskolatze-udalerrian kokatutako erakunde baten bidez egin beharko dute.

Udalerrian ez badago praktikatu nahi den modalitatea edo diziplina garatzen duen entitaterik, bizi den edo eskolatuta dagoen udalerritik hurbilen dagoen udalerrian egingo du.

50.000 biztanletik gorako udalerrietan, lurralde eremu txikiagoak ezarri ahal izango dira, hala badagokio, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta dagokion udaleko kirol administrazioaren artean adostuta.

Behar bezala egiaztatutako kasuetan (bizilekua edo zentroa aldatzea, familia-arrazoi garrantzitsuak, udalerritik kanpo dagoen kirol-hastapeneko unitate batekiko hurbiltasun geografiko handiagoa edo antzeko beste batzuk), Kirol Zuzendaritza Nagusiak baimena eman ahal izango du bizi den udalerrian ez dauden erakundeetan edo, hala badagokio, eskolatze-udalerrian ez daudenetan parte hartzeko.

Gertutasun geografiko handiagoari dagokionez, nahiz eta eskola-umea bizi den edo eskolatuta dagoen udalerrian kirol-instalazio bat egon, Kiroletako Zuzendaritza Nagusiak baimena eman ahal izango die eskola-umeei bizi diren edo eskolatuta dauden udalerrian ez dauden kirol-erakundeetan parte hartzeko, baldin eta udalerri mugakide bateko kirol-erakunde baten irakaskuntza-jarduerak egiten diren kirol-instalazioak ikastetxetik edo eskola-umearen bizilekutik 2 kilometrora arteko erradioan badaude.

Erakunde bakoitzak bere jarduera garatu beharko du bere udalerriko kirol-instalazioetan, non eta, salbuespenezko egoeretan, hori ezinezkoa ez den, eta Kirol Zuzendaritza Nagusiak berariaz baimentzen ez duen.

Ezarritako lurralde eremuak berariazko baimenik gabe gainditzea arau hauste administratibo zigorgarria izango da, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 143.u artikuluan xedatutakoaren arabera (edo etorkizunean hori ordeztuko duen arauan).

# 3. ESKOLA-KIROLAREN APLIKAZIOAN (KIROL DATA) IZENA EMATEA

Urteko programan jasotzen diren programetan eta/edo jardueretan parte hartu ahal izango dute eskola-kirolaren aplikazioan izena ematen duten eskola-umeek, monitoreek, entrenatzaileek, ordezkariek eta arbitroek, ezarritako epeetan. Inskripzio hori beharrezkoa da eskola-lizentzia izapidetu eta emateko.

Izapide hori errazteko, tutorial bat eskaintzen da, zeina webgune honetan argitaratzen baita: https:/kirolak.gipuzkoa.eus

## 3.1. ESKOLA-KIROLAREN APLIKAZIOAN ESKOLA-UMEEN LEHEN ALTA

Ikastetxeak arduratuko dira eskola-kirolaren aplikazioan eskola-umeen lehen alta izapidetzeaz.

Beraz, kirol-erakunde batek eskola-kirolaren aplikazioan alta eman ez zaion eskola-ume bat inskribatu nahi badu, erakunde interesdunak dagokion ikastetxearekin jarri beharko du harremanetan, edo, hala badagokio, Kirol Laguntza Bulegoarekin (KLB).

Hala ere, aldez aurretik eskola-kirolaren aplikazioan alta eman ez zaien arbitroak dagokion erakundearen bidez inskribatu ahal izango dira.

## 3.2. IZENA EMATEKO EPEAK ETA ERAKUNDE ARDURADUNAK

Eskola-kirolaren aplikazioan, eskola-umeen, teknikarien, ordezkarien eta arbitroen inskripzioak dagokien jarduera garatzen duten erakundeen bidez egingo dira (batez ere, ikastetxeak, klubak edo kirol-elkarteak). Horretarako, erakundeak alta emanda egon beharko du eskola-kirolaren aplikazioan.

Eskola-umeen inskripzioa egiteko, dagokion erakundeak amaren/aitaren edo legezko tutorearen sinadura jaso beharko du eskola-adineko JFK programako jardueretan izena emateko unean. Gainera, izena emateko inprimakian datu pertsonalen babesari buruzko informazioa sartu beharko du. Webgune honetan argitaratzen da: https:/kirolak.gipuzkoa.eus

Izena emateko epeak programa bakoitzari dagokion Laburpen-koadroan daude jasota:

a. **Ikastetxeen bidez garatzen diren programen Laburpen-koadroa**: Jolas Hezi programa, Multikirola programa, EKE programa, Kirol Hastapeneko kanpaina (II. eranskina).

b. **Nagusiki kirol-erakundeen bidez garatzen diren programen Laburpen-koadroa**: Kirol bakarreko hastapen-programa eta errendimendu-hastapeneko lehiaketa (III. eranskina).

Hala ere, erakundeek edozein unetan egin ahal izango dituzte inskripzioak, ezarritako epetik kanpo, eskola-kirolaren aplikazioaren bidez. Inskripzio horiek gorabehera bat sortuko dute, eta Kiroletako Zuzendaritza Nagusiak ebatzi beharko du gorabehera hori. Gorabehera konpondu arte, ez da alta edo inskripziorik egingo, eta, beraz, parte-hartzaileek ez dute eskola-lizentziarik izango.

IV. eranskinean, eskola-adineko JFK programako jardueretan gertatzen diren gorabehera jakin batzuk konpontzeko prozedurari buruzko informazio gehiago ematen da.

Arbitroen inskripzioa haien antolamendua kudeatzen duen erakundearen bidez egingo da, eskola-adineko JFK urteko programako edozein jardueratarako (ikastetxeak, klubak, kirol-elkarteak, federazioak, kirol-zerbitzuetako enpresak edo beste batzuk). Inskribatutako arbitroek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

**a.** Haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateari buruzko prestakuntza espezifikoa (LOPIVI).

**b.** Sexu-izaerako delituen ziurtagiri negatiboa edukitzea.

**c.** Gutxienez 16 urte izatea.

## 3.3. ESKOLA-LIZENTZIA DIGITALA

Aurten, berrikuntza gisa, 125/2008 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskola-lizentzia digitalak emango zaizkie eskola-kirolaren aplikazioan izena emanda dauden eskola-umeei. 2025-26 ikasturtetik aurrera, eskola-lizentzia guztiak digitalak izango dira.

2025eko irailaren 1etik aurrera izango dute balioa, eta 2026ko abuztuaren 31ra arte egongo dira indarrean. Beraz, jarduerak dagokion inskripzioa egin ondoren hasi ahal izango dira.

### 3.3.1. ESKOLA-LIZENTZIA DESKARGATZEA

Erakunde interesdunek edozein unetan deskargatu ahal izango dute eskola-lizentzia digitala, banakakoa zein taldearena, eskola-kirolaren aplikazioaren bidez. QR sarbide bat du, eta ikasturtean zehar egiten diren aldaketei buruzko informazioa denbora errealean jasotzen du, hala nola alta eta baja berriak izapidetzea. Beraz, nahikoa da dagokion lizentzia behin bakarrik deskargatzea. Taldeko lizentziek indarrean dagoen ikastaroari dagokion balioa izango dute. Banakako lizentziak pertsonalak eta besterenezinak dira.

### 3.3.2. INTZIDENTZIA DUTEN TALDEAK ETA/EDO PARTE-HARTZAILEAK

Eskola-adineko JFK jardueren programa garatzean, intzidentzia jakin batzuk gertatzen dira unean-unean. Parte-hartzaileen kopuruari, kategoriari, sexuari eta ikastetxeari eta izena emateko epeei buruzko irizpide orokorrak betetzen ez dituzten inskripzioak dira.

Intzidentzia konpontzen ez den bitartean, ez da alta edo inskripziorik egingo, eta, beraz, parte-hartzaileek ez dute eskola-lizentziarik izango.

IV. eranskinean, eskola-adineko JFK programaren jardueretan gertatzen diren gorabehera jakin batzuk konpontzeko prozedurari eta irizpide orokorrei buruzko informazio gehiago ematen da.

# 4. ESKOLA-KIROLEKO ASEGURUA

## 4.1. ARRISKUEN ESTALDURA

Arriskuen estaldurari dagokionez, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legean xedatutakoa beteko da.

Ildo horretan, eskola-kiroleko programan parte hartzen dutenek (kirolariek, teknikariek, ordezkariek eta arbitroek) aseguru-poliza bat izango dute, honako arrisku hauen estaldura bermatuko diena: erantzukizun zibila, galera anatomiko eta funtzionalengatiko kalte-ordaina eta heriotza.

Estaldura horien onuradun izateko, ezinbestekoa da eskola-kirolaren aplikazioan izena emanda egotea. Zehazki, hauek dira eskola-kirolaren urteko programan sartuta dauden programak eta jarduerak:

- **a.** Multikirola programa
- **b.** Kirol-hastapeneko kanpaina
- **c.** Jolas Hezi programa
- **d.** EKE programa
- **e.** Kirol bakarreko hastapen-programa
- **f.** Errendimenduan hasteko eta kirol-talentuak eta -promesak hautemateko ibilbideetako jarduerak, kasuan kasuko lurralde-federazioen urteko hitzarmenen barruan daudenak.

Programatik kanpoko gainerako jarduerak (txapelketak, campusak, etab.) eskola-kiroleko aseguruaren estalduratik kanpo geratzen dira.

Aseguruaren estaldurari buruzko informazio osoa eta eguneratua webgune honetan argitaratzen da: https:/kirolak.gipuzkoa.eus

### 4.2. ASEGURUAREN ESTALDUREN KUDEAKETA

Aseguru-estaldura duten kasuetan, kirol-jardueratik kanpoko hirugarren pertsona bati lesio, kalte edo ezbeharren bat eragin dion pertsonaren entitateak dagokion dokumentazioa bidaliko dio Kirol Zuzendaritza Nagusiari, eskola-kirolaren aplikazioaren bidez, ezarritako protokoloari eta kasu bakoitzerako ereduzko dokumentuei jarraituz. Bertan, aseguratutako pertsonaren profilean erantsiko da, eta ezbeharra gertatu zen unean parte hartzen ari zen taldeko kideen zerrendatik eskuratuko da profil hori.

Izapide hori egin ondoren, Kirol Zuzendaritza Nagusiak interesdunei (erakundearen koordinatzaileari eta aseguratutako pertsonaren ama/aita/legezko tutoreari) bidaliko die dagokion dokumentazioa, eskola-kirolaren aplikazioaren bidez. Dokumentazioa behar bezala beteta ez badago, horren berri emango zaio erakundeari, eta hark 10 egun naturaleko epea izango du eskatutako dokumentazioa zuzentzeko. Dokumentazio guztia osatu ondoren, pertsona aseguratuek eta/edo hirugarrenek webgune honetan jakinarazi bezala jardun beharko dute: https:/kirolak.gipuzkoa.eus

## 5. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN BETEKIZUNAK

Eskola-adineko JFK programan sartutako jarduerak ikastetxeen, kirol-kluben, kirol-elkarteen edo kirol-federazioen bidez garatu ahal izango dira.

Erakunde parte-hartzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

### 5.1. EUSKADIKO KIROL ERAKUNDEEN ERREGISTROAN INSKRIPZIOA

Programan parte hartzen duten kirol-klubek eta -elkarteek Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatuta egon beharko dute, eta dagokion Gipuzkoako federazioan afiliatuta, edo, lurralde-federaziorik ez badago, euskal federazioan. Beren estatutuetan jasotako modalitateetan eta/edo diziplinetan soilik garatu ahal izango dituzte kirol-jarduerak.

## 5.2. LOPIVI BETETZEA

Erakunde parte-hartzaileek, eskola-kirolaren aplikazioaren bidez, adierazi beharko dute Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak (LOPIVI) ezartzen dituen honako eskakizun hauek betetzen dituztela:

**a.** Administrazio publikoek kirol-esparruan hartzen dituzten jardun-protokoloak aplikatzea.

**b.** Babes-ordezkariaren izendapena.

**c.** Teknikarien eta babes-ordezkariaren prestakuntza espezifikoa.

**d.** Administrazio publikoek kirol-arloan hartzen duten monitorizazio-sistema ezartzea.

## 5.3. ESKOLA-KIROLAREN APLIKAZIOAN IZENA EMATEA

Urtero, erakunde parte-hartzaileek informazio hau eman beharko dute taldeak eta parte-hartzaileak eskola-kirolaren aplikazioan inskribatzeko orduan:

**a.** Erakundeko zuzendariaren, koordinatzailearen eta babes-ordezkariaren harremanetarako datuak.

**b.** Koordinatzailearen eta teknikarien titulazioa eta lan-harremana. Titulazioari dagokionez, 8/2022 Legeak, ekainaren 30ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoak, dioena bete beharko da.

**c.** Taldeko teknikarien prestakuntza espezifikoa haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteari buruz (LOPIVI).

**d.** Taldeko teknikarien eta, hala badagokio, arbitroen hizkuntza-gaitasuna, titulazioa eta euskararen erabilera.

**e.** Deklaratzea ekipoaren inskripzioan ageri diren adingabeekin jarduten duten teknikariek sexu-delituen ziurtagiri negatiboa dutela, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak (Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati batzuk ere aldatu zituen) 13. artikuluko 5. zenbakian ezarritakoarekin bat etorriz.

**f.** Eskola-umeen, entrenatzaileen, ordezkarien eta, hala badagokio, arbitroen izen-abizenak. Teknikariek eta arbitroek 16 urte izan beharko dituzte gutxienez.

**g.** Taldeen entrenamendu-ordutegiak eta -egunak.

Arautakko irakaskuntza-jarduerak dituzten diziplinen kasuan (**futbola, areto-futbola, saskibaloia, eskubaloia, errugbia, piraguismoa, atletismoa, txirrindularitza, izotz gaineko patinaje artistikoa, izotz-hockeya, hockeya, boleibola eta arrauna**), benjamin eta alebin kategorietarako adostutako entrenamendu-saioen kopurua errespetatu beharko dira. Saio horiek Kirol Bakarreko Hastapen Programaren laburpen-taulan jasotzen dira (III. eranskina). Irakaskuntza-saio horiek garatzen diren udalerriko udalarekin adosten diren astegunetan egingo dira. Beraz, eskola-kirolaren aplikazioan adierazten diren benjamin eta alebin kategoriako taldeen entrenamendu-eguna eta -ordua dagokion udalak baliozkotu beharko ditu, parte-hartzaileak inskribatu ahal izateko. Eskabidean adierazitako jardueren egun, ordu eta lekuei buruzko edozein aldaketa Kiroletako Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko zaio, dagokion udalak baimena eman ondoren. Betebehar hori ez betetzea arau hauste administratiboa izango da, eta martxoaren 30eko 2/2023 Legearen eta Kirolaren, Euskadiko Jarduera Fisikoaren 143.u artikuluan tipifikatuta dago (edo etorkizunean hura ordeztuko duen arauan).

## 5.4. DATU PERTSONALEN BABESA

Entitate parte-hartzaileek datu pertsonalen babesari buruzko informazioa sartu beharko dute izena emateko inprimakian. Informazio hori webgune honetan dago: https:/kirolak.gipuzkoa.eus

## 5.5. PUBLIZITATEARI BURUZKO ARAUDIA BETETZEA

Jantzietan edo kirol-ekipamenduan propaganda eramanez gero, dagokion erakundearen izenaren kontrako aldean inprimatu beharko da, eta errespetatu egin beharko da Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorrean eta Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legean edari alkoholdunen eta tabakoaren publizitateari dagokionez xedatutakoa. Xedapen hori betetzen ez bada, eskola-umeak ezin izango du kirol-topaketan parte hartu. Informazio gehiago webgune honetan: https:/kirolak.gipuzkoa.eus

Xedapen hori betetzen ez bada, eskola-umeak ezin izango du dagokion jardueran parte hartu.

## 5.6. ESKOLA-KIROLAREN ARAUDIA BETETZEA

Parte hartzen duten erakundeek eskola-kirolari buruzko araudia bete beharko dute, eta lurraldefederazio bakoitzarekin lortutako akordioak errespetatu.

### 5.6.1. JARDUEREN GARAPENA ETETEA. IKUSKARITZA.

Kirol Zuzendaritza Nagusiak jakiten badu jarduerarik baimenik gabe egiten ari dela, bertan ezarritako baldintzetatik aldentzen ari dela edo indarrean dagoen araudia urratzen ari dela, behin-behinean erabaki ahal izango du jarduera berehala etetea, hargatik eragotzi gabe zehapen-espedientea hastea.

Zuzendaritza horrek, berariaz gaitutako pertsonen bidez, ikuskapen-lanak egingo ditu, foru-agindu hau, emandako baimenak eta aplikatu beharreko gainerako legeria betetzen direla kontrolatzeko.

Ikuskapena egiteko unean, arduradunek, antolatzaileek edo langileek ikuskatzaileekin lankidetzarik ez izatea edo lana oztopatzea, hartara ikuskapen hori guztiz ezin egiteko moduan, administrazioko arau-haustea izango da, eta zehatu ahal izango da 2/2023 Legeak, otsailaren 20koak, arau-hauste eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duenak, 143.n artikuluan xedatutakoari jarraikiz (edo etorkizunean hura ordeztuko duen arauari jarraikiz).

### 5.6.2. ZEHAPEN ARAUBIDEA

Foru agindu honetan jasotako xedapenak ez betetzea arau hauste larria izango da, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 143.u artikuluan (edo etorkizunean hori ordeztuko duen arauan) xedatutakoaren arabera, eta bertan aurreikusitako zehapenen araubidea aplikatuko da.

### 5.6.3. ERREKURTSOAK

Kirol Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio kirol arloan eskumena duen foru departamentuko foru diputatuari.

# 6. EKI ESTRATEGIA (ESKOLA-KIROL INKLUSIBOA)

## 6.1. DEFINIZIOA

Desgaitasuna edo dibertsitate funtzionala duten eskola-umeek hezkuntza-sisteman duten parte-hartze inklusiboak isla izan behar du kirol-jardueretan, pertsona horiek mugimendu-esperientziak eskuratu ahal izan ditzaten jarduera fisikoaren edo kirolaren bidez, haien premia zehatzei eraginkortasunez erantzungo dien testuinguru batean.

Ildo horretan, ahalegina egingo da, ahal den neurrian, eskola-ume guztiak, salbuespenik gabe, kirolean has daitezen eta beren parekoekin parte hartzea ahalbidetuko duten testuinguruak eraiki ditzaten.

Desgaitasuna edo dibertsitate funtzionala duten eskola-umeen inklusioa errazteko, Kirol Zuzendaritza Nagusiak EKI (Eskola Kirol Inklusiboa) estrategia proposatzen du.Esku-hartze inklusiboa, lehentasunezkoa eta erreferentea da, dibertsitate funtzionala duten eskola-umeek eskola-adineko edozein JFK jardueratan modu integral eta esanguratsuan parte har dezaten. Kasu batzuetan, taldean izan daiteke, bigarren begirale batekin. Ikastetxeek eta/edo kirol-klub edo -elkarteek gara dezaketen inklusio-estrategia bat da.

Ildo horretan, eskola-adineko kirol inklusiboaren eskaintza (EKI) duten erakundeek horren berri emateko aukera izango dute, ohiko jardueren eskaintzaren bidez.

## 6.2. ADMINISTRAZIO-ARAUAK

Era berean, dagokion erakundea arduratuko da dagozkion administrazio-prozedurak egiteaz (inskripzioak), dagokion taldearen inskripzioan EKI laukia hautatuz, bai eta jarduketen jarraipena egiteaz eta programan inskribatuta dauden eta inskribatuta ez dauden eskola-umeek batera parte hartzeko topaketa inklusiboak antolatzeaz ere.

## 6.3. EKI ESTRATEGIA EZARTZEKO BALIABIDEAK

EKI estrategia abian jartzea errazteko, baliabide hauek daude:

### 6.3.1. AHOLKULARITZA ZERBITZUA EMATEA

Kirol Zuzendaritza Nagusiaren doako zerbitzu bat da, eta, horren bidez, banakako aholkularitza ematen zaie ikastetxeetako edo klubetako EKI taldeetako arduradunei, Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioaren bidez.

Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioko teknikariak inklusio-prozesua abian jarri nahi duen kirol-zentrora edo -erakundera hurbilduko dira. Erakundearen barne-eragileekin jardungo du: Ikastetxeak (zuzendaria, tutorea edo pedagogia terapeutikoko arduraduna) eta klubak (koordinatzailea eta entrenatzailea).

Maiz, eskola-umearen familiarekin ere hitz egingo dute. Elkarrizketa horien guztien helburua da haurraren premiak eta gaitasunak ezagutzea. Kirol-testuinguru espezifikoa behatzea eta, ahal den neurrian, dauden inklusio-aukerak baloratzea, zenbait aholku eta gomendio emanez.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioarekin: info@gkef-fgda.org / 943 462 514

#### 6.3.2. EKI GIDA

Desgaitasunari kirol-arreta emateko gida espezifiko bat da, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarrekin egina. Desgaitasun bakoitzak (motorra edo fisikoa, sentsoriala eta neurogarapenaren nahasmendua) kirol-arloko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak eskatzen dituen eta kontuan hartu behar dituen ohiko gomendioak jasotzen eta garatzen ditu. Gida webgune honetan dago eskuragarri: https:/kirolak.gipuzkoa.eus

#### 6.3.3. IRAKASKUNTZARAKO LAGUNTZA-LANGILEEN KOSTUETARAKO DIRULAGUNTZA

Kirol Zuzendaritza Nagusiak urtero argitaratzen ditu desgaitasuna edo dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako jardueretarako Gipuzkoako toki-erakundeei norgehiagoka-araubidean ematen zaizkien dirulaguntzen oinarriak. Zehazki, eskola-kirolaren programan parte hartzen duten EKI taldeentzako laguntzen helburua irakaskuntzarako laguntzaileen kostuak finantzatzea da. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu webgune hau: https:/kirolak.gipuzkoa.eus

## 7. ESKOLA-ALDITIK KANPO PROGRAMAZ KANPOKO JARDUEREN OINARRI OROKORRAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero onartuko du eskolaz kanpoko aldiari dagokion egutegia. Eskolaz kanpoko denboralditzat hartuko dira Multikirola Programako kirol-topaketarik ez duten guztiak.

Eskolarik gabeko aldietan, programatik kanpo, campusak, topaketak edo txapelketak egin ahal izango dira kirol-erakundeen artean, modalitate guztietan. Antolaketak edo partaidetzak eskola-kiroleko programetan sartzen ez diren baimenen araubide orokorra bete beharko du. Hori dela eta, berariazko baimena telematikoki eskatu beharko da, baimena egin baino 15 egun lehenago gutxienez.

Programatik kanpo ezin izango da jarduerarik antolatu modalitate edo diziplina bakoitzerako Kirol Bakarreko Hastapeneko Programaren laburpen-taulan (III. eranskina) adierazitako kategoria baxuagoetan.

Benjamin kategoriatik aurrera, eskolaz kanpo, jardueraren eremu geografikoa salbuespenez gainditzeko baimena ematen da, Eskola Kirolari buruzko 125/2008 Dekretuaren 5.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Hori horrela, modalitate guztietan Gipuzkoako Lurralde Historikoa gainditzeko aukera egongo da.

Nolanahi ere, jarduera horietan parte hartzeak ez du eskola-kirolaren asegururik izango, eskola-kirolaren programan sartzen ez diren jarduerak direlako.

# JARDUEREN ESKAINTZA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskola-adineko JFK urteko programak honako programa hauek ditu, eta erakunde antolatzailearen arabera sailkatzen dira: ikastetxea edo kirol-erakundea.

Ikastetxeen bidez honako programa hauek garatzen dira:

**a.** Jolas Hezi programa

**b.** Multikirola programa

**c.** EKE programa

**d.** Kirol-hastapeneko kanpaina

Nagusiki kirol-erakundeen bidez garatzen diren programak edo jarduerak honako hauek dira:

**a.** Kirol bakarreko hastapen-programa

**b.** Errendimenduari ekiteko ibilbideko jarduerak

**c.** Kirol talentuak eta promesak hautemateko ibilbideko jarduerak

Ezarritako helburuak lortzera bideratutako jarduera mota desberdinek osatzen dituzte programak. Programa horiek erakunde bakoitzaren, eskola-umeen eta testuinguruaren errealitatera egokituta egon beharko dute.

## 1. IKASTETXEEN BIDEZ GARATZEN DIREN KIROL-PROGRAMAK

Erreferentziazko eta lehentasunezko programak dira, eta, horren ondorioz, Kirol Zuzendaritza Nagusiak lehentasunez bideratuko ditu programa horiek garatzeko eta gauzatzeko behar diren baliabideak, eskola-adineko JFK araudiaren xede eta helburu nagusiak lortzen direla bermatzen baitute.

Horiek guztiak partaidetza-ibilbidearen barruan daude. Beraz, izaera nagusiki hezitzailea eta ludikoa du, eta ez du inolako mugarik parte-hartzaileen kopuruari dagokionez.

Ikastetxeen bidez honako programa hauek gara daitezke: Jolas Hezi programa, Multikirola programa, EKE programa, Kirol Hastapeneko kanpaina.

Jarraian, programa bakoitzaren helburuei, jarduerei eta parte hartzeko arauei buruzko informazioa ematen da.

## 1.1. JOLAS HEZI PROGRAMA

### 1.1.1. DEFINIZIOA

Kirolaz kanpoko jarduera motorren tokiko eta komunitateko programa bat da, benjaminaurreko kategoriako eskola-umeen mugimendua aberasteko eta ahalduntzeko.

Jarduera horiek ikastetxeetan bakarrik egiten dira, eskola-orduetatik kanpo, Gipuzkoako Foru Aldundiak horretarako ezarritako programaren arabera. Kirolaren ikuspegitik haratago garapen orekatuago eta askotarikoago bat ahalbidetuko duten kirolaz bestelako mugimendu-esperientziak bermatzea du helburu, baita eskola-umeen alfabetatze motorra berdintasunez bultzatzea ere, kirol-edukiekin etapei ekin aurretik. Helburuak eta edukiak webgune honetan argitaratzen dira: https:/kirolak.gipuzkoa.eus

Oinarrizko mugimen-trebetasunak garatzen hasteko jarduerek eta kirol-topaketek osatzen dute programa.

### 1.1.2. ADMINISTRAZIO-ARAUAK

Izen-ematea ikastetxeen bidez egingo da, eskola-kiroleko izen-emateen aplikazioan, “hastapen-programa” ibilbidearen barruan, ikastetxeetako hastapen-jardueren laburpen-taulan (III. eranskina) ezarritako epeetan.

## 1.2. MULTIKIROLA PROGRAMA

### 1.2.1. DEFINIZIOA

Multikirola programa kirol anitzeko hastapeneko programa bat da, tokikoa eta komunitatekoa, benjamin eta alebin kategorietako eskola-umeei zuzendua, eta ez dago soilik lehiaketara bideratuta.

Ikastetxeek eskola-ordutegitik kanpo garatu eta gauzatzen duten programa bat da, tokiko erakundeen eta gainerako ikastetxeen lankidetzaren bidez, eta helburu bakarra du: bermatzea eskola-ume guztien prestakuntza-helburuak, helburu inklusiboak eta parte-hartze osoak betetzen direla.

Programa horrek hastapen-jarduera hauek ditu: kirol bakarrekoak eta kirol-topaketak.

### 1.2.2. ADMINISTRAZIO-ARAUAK

Izen-ematea ikastetxeen bidez egingo da, eskola-kiroleko izen-emateen aplikazioan, “hastapen-programa” ibilbidearen barruan, ikastetxeetako hastapen-jardueren laburpen-taulan (III. eranskina) ezarritako epeetan.

### 1.2.3. KIROL-TOPAKETAK ANTOLATZEKO OINARRIAK

**a.** Kirol-topaketak larunbat goizetan egingo dira.

**b.** Urteko egutegiko jardunaldien gutxieneko kopurua 18 izango da.

**c.** Partiden azken data ekainaren 1a izango da.

**d.** Egutegiak eskualde eta/edo udalerri bakoitzean zehaztu eta egingo dira, udalerrian eta/edo eskualdean bertan kirola-eskaintza antolatua eta ez antolatua kontuan hartuta, etorkizunean kirola egiten jarraitzeko aukera bermatzeko.

**e.** Emaitzaren gainetik, eskola-ume guztien prozesura bideratutako programa denez, topaketetan lehiakortasuna sustatu ahal izango da, baina ez da lehiaketarik egongo, eta ez da sailkapen ofizialik emango, ezta emaitzen argitalpenik ere. Hala ere, interesa duten eskualdeek Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa dagokion modalitatean antolatzen jarraitu ahal izango dute. Kasu horretan, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketarako erabakigarriak diren tokiko eta eskualdeko fase guztiak 2026ko maiatzaren 16rako amaitu beharko dira. Data horretatik aurrera, ekainaren 15era arte, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketaren azken faseak egin ahal izango dira.

**f.** Egutegiak kirol anitzekoak izango dira, eta kirol-modalitate bat baino gehiago eta izaera desberdinekoak egin beharko dira.

- Benjamin kategorian, taldeko kirol bakoitzeko jardunaldien kopurua ezin izango da bederatzi (9) baino handiagoa izan, ezta lau (4) baino txikiagoa ere, ikastetxeko kirol anitzeko egutegian ezartzen diren kirol kolektiboetatik 3tan gutxienez. Banakako modalitateetan, lanaldien kopurua ezingo da izan lau (4) baino handiagoa, ez eta bi (2) baino txikiagoa ere, mendikoaren kasuan izan ezik.
- Alebin kategorian, taldeko kirol bakoitzean ezingo dira bederatzi (9) jardunaldi baino gehiago egin, ez eta lau (4) baino gutxiago ere, ikastetxeko kirol anitzeko egutegian ezartzen diren kirol kolektiboetatik gutxienez bitan (2).

**g.** Taldeak ordu/txanda desberdinetan antolatuko dira. Saihestu egingo da, ahal den neurrian, joan-etorriko “partidetan” oinarritutako antolaketa; horren ordez, lehentasuna emango zaio txandakako kontzentrazio-sistemari, leku bakar batean, eskola-umeek minutu gehiagoko mugikortasun eraginkorra izan dezaten. Espazioak txokoen bidez antolatzea sustatuko da. Horiek espazio seguru antolatuak izango dira, eta, banakako, binakako edo taldekako aurkakotasun-egoerak egongo diren arren, hezkuntza-inguruneetan garatuko dira. Kanpo-logikak, emaitzari begira, garrantzia galduko du, eta jardueraren barne-logikak eskola-umeen ikaskuntza-prozesua lehenestea ahalbidetuko du.

**h.** Irakaskuntza-saioak (asteko entrenamenduak) asteburuko kirol-jarduerara bideratuta egongo dira. Beraz, kirol-topaketak aukera bat izango dira astean zehar eskuratutako kirol-ezagutzak praktikan jartzeko.

**i.** Topaketa horietan, kategoria bakarra izango da, hau da, ez da desberdintasunik egongo mutilen, nesken edo bitariko taldeen artean, eta berdin izango da horien osaera zein den topaketetarako taldeak ezartzeko orduan.

## 1.3. “ESKOLA KIROL EGOKITUA” (EKE) PROGRAMA

### 1.3.1. DEFINIZIOA

“Eskola Kirol Egokitua” programa kirol anitzeko hastapeneko tokiko eta komunitateko programa bat da, lehiaketara bakarrik egokitua eta bideratu gabea. Ikastetxeek eskola-ordutegitik kanpo gauzatzen dute, toki-erakundeen lankidetzaren bidez, eta helburu bakarra du: “Multikirola” programan parte hartu ezin izan duten eskola-ume desgaitu guztiek prestakuntzako, inklusioko eta parte-hartze osoko helburuak betetzen dituztela bermatzea.

EKE programa 6 eta 21 urte bitarteko desgaitasuna duten haur eta gazteei zuzenduta dago, eta testuinguru bereizietan garatzen da, Kirol Anitzeko Programaren ohiko taldean parte hartzea bermatzeko zailtasunak daudenean.

Hastapen-jarduera hauek ditu: oinarrizko garapen motorra, kirol bakarreko hastapenak eta kirol-topaketak. Oro har, ur-jarduerak eta areto-jarduerak eskaintzen dira.

### 1.3.2. ADMINISTRAZIO-ARAUAK

Izen-ematea ikastetxeen bidez egingo da, eskola-kirolaren aplikazioan, “hastapen-programa” ibilbidearen barruan, ikastetxeetako hastapen-jardueren laburpen-koadroan (II. eranskina) ezarritako epean, jarduera Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioaren bidez egiten den kasuetan izan ezik; kasu horretan, izen-emateak haren bidez egingo dira.

### 1.3.3. JARDUEREN ESKAINTZA

Desgaitasuna duten eskola-ume guztien prestakuntza, inklusioa eta parte-hartzea modu integralean bermatzeko, azken helburua da EKE taldea Kirol Anitzeko Programaren eskaintza konbentzionalaren parte izatea; hau da, lehentasunez ikastetxeen bidez garatzea, toki-erakundeen eta gainerako ikastetxeen lankidetzaren bidez. EKE programa batez ere ikastetxeen bidez garatzeak, tokiko erakundeen eta gainerako ikastetxeen lankidetzaren bidez, erraztu egiten du familiek programaren berri izatea eta, beraz, desgaitasuna duten eskola-umeen parte-hartzea.

Hala ere, EKE programa ikastetxeko kirol anitzeko programa konbentzionalaren barruan sartzen ez den kasuetan, udalerri edo eskualde horretako EKE programak aldi baterako antolatu ahal izango dira, udalaren bidez edo, hala badagokio, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan.

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioaren bidez, kirolarientzako eta haien familientzako kirol-orientazioko zerbitzu bat eskaintzen du, bai eta jardueren garapenean inplikatutako teknikariei ere, jarraian laburbiltzen den eskaintzaren arabera. Eskaintzari buruzko informazio zehatza eskuratzeko, jo erakunde antolatzailera.

#### a. EKE programa ikastetxeen bidez

| Eskualdea | Udalerriak | Zerbitzu-emailea |
|---|---|---|
| Debagoiena | Aretxabaleta, Arrasate, Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Aramaio | Leintz Bailara (ikastetxeak) |
| | Bergara, Elgeta, Antzuola | Bergaraldea (ikastetxeak) |
| | Oñati | Oñati (ikastetxeak) |
| Oarsoaldea | Pasaia, Oiartzun, Lezo eta Errenteria | Oarsoaldeko Eskola Kiroleko Mahaia eta Mindara elkartea |

## b. EKE programa udalen bidez

| Eskualdea | Udalerriak | Zerbitzu-emailea |
|---|---|---|
| **Debabarrena** | Eibar | Eibarko Udala |
| **Debabarrena** | Elgoibar | Elgoibarko Udala |
| **Urola Erdia** | Azkoitia | Ayuntamiento y centros escolares |
| **Urola Kosta (Oeste)** | Zumaia , Aizarnazabal, Zestoa, Deba, Mutriku | Zumaiako Udala |
| **Buruntzaldea** | Hernani, | Hernaniko Udala |

## c. EKE programa, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioaren bidez

| Eskualdea | Udalerria | Lekua | Eguna |
|---|---|---|---|
| **BIDASOA** | Irun | Eguzkitza LHI | Astelehena-Ostirala |
| | | Txingudi Ikastola | Asteartea- Osteguna |
| | | Hirubide BHI | Asteartea- Osteguna |
| | Hondarribia | Jostaldi Pilotalekua<br>Hondartza Igerilekua | Astelehena-Ostirala |
| **DONOSTIA** | Donostia | Intxaurrondo Igerilekua | Ostirala |
| | | Paco Yoldi Igerilekua | Ostirala |
| | | HEFA Fakultatea | Asteartea |
| | | Easo Politeknikoa | Asteartea-Asteazkena-Osteguna |
| **BETERRI-BURUNTZALDEA** | Andoain | Allurralde Igerilekua | Osteguna |
| | Urnieta | Egape LHI | Asteazkena |
| | Hernani | Kiroldegia | Osteguna |
| **TOLOSALDEA** | Tolosa | Usabal Igerilekua | Asteartea |
| **AIZTONDO** | Amasa-Villabona | Olaederra Igerilekua | Ostirala |
| **GOIERRI** | Ordizia | Urdaneta HI | Asteazkena |
| | | Majori Igerilekua | Ostirala |
| | Beasain | Antzizar Igerilekua | Astelehena |
| | | La salle BHI | Astelehena |
| **UROLA GARAIA** | Urretxu | Aldiri kiroldegia | Ostirala |
| | Legazpia | Bikuña Igerilekua | Asteazkena |
| | Zumarraga | Ispilla Igerilekua | Astelehena |

## 1.4. KIROL-HASTAPENEKO KANPAINA

### 1.4.1. DEFINIZIOA

Tokiko programa bat da, batez ere ikastetxeek eskola-orduetan gauzatzen dutena, udalen, federazioen eta kirol-kluben laguntza teknikoarekin.

Ikastetxearen jarduera osagarriak dira, gehienbat eskola-orduetan egiten baita. Ondorioz, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan eta, bereziki, Ikasturteko Planean jaso behar dira nahitaez, ikastetxearen berezko jarduerak baitira.

Kirol-hastapeneko jarduerak iraupen laburreko ikastaroak dira, eta eskola-eremuan atzerapen-arazoak dituzten edo ezarpen txikia duten kirol-modalitateak sustatzera bideratuta daude.

### 1.4.2. ADMINISTRAZIO-ARAUAK

Inskripzioa ikastetxeen bidez egingo da eskola-kirolaren aplikazioan, “hastapen-programa” ibilbidearen barruan, modalitate bakoitzerako ezarritako epeetan.

### 1.4.3. JARDUEREN ESKAINTZA

II. eranskinean, 2025-2026 ikasturterako kirol-hastapeneko kanpainaren laburpen-taula bat dago.

Kirol-hastapeneko kanpainako jarduera guztiei buruzko informazioa, jarduera bakoitzaren ezaugarriak jasotzen dituena, webgune honetan argitaratzen da: https:/kirolak.gipuzkoa.eus

Bertan jasotzen diren jarduerak egiteko, jardueren ardura duten erakundeekin akordioak egin behar dira.

Kirol-hastapeneko kanpainen deialdiek jarduera inklusiboei buruzko informazio zehatza jasoko dute. Jarduera horien edukiak eskola-adineko eskola-ume guztiei egokitzea da kanpainaren helburua, eskola-ume bakoitzaren premia espezifikoak alde batera utzita.

# 2. NAGUSIKI KIROL-ERAKUNDEEN BIDEZ GARATZEN DIREN KIROL-PROGRAMAK

Kirol-erakundeek batez ere honako programa edo jarduera hauek egiten dituzte: Kirol bakarreko hastapen-programa eta errendimenduari ekiteko eta kirol talentuak eta promesak hautemateko ibilbideetan sartutako jarduerak.

## 2.1. KIROL BAKARREKO HASTAPEN-PROGRAMA

### 2.1.1. DEFINIZIOA

Batez ere kirol-erakundeek (kirol-klubek edo -elkarteek) gauzatzen duten programa bat da, kirol-modalitate bakar baten hastapenean oinarritzen dena, dagokion kirol-modalitate edo -diziplinari dagozkion trebetasun espezifikoak eskuratu eta garatzeko. Hala ere, hala nahi duten ikastetxeek Kirol Bakarreko Hastapen Programako jarduerak ere garatu ahal izango dituzte.

Parte hartzeko ibilbidearen barruan dago. Beraz, izaera nagusiki hezitzailea eta ludikoa du, eta ez du inolako mugarik parte-hartzaileen kopuruari dagokionez. Haren erregulazioan, eskola-ume guztiek dagokien kirola ezagutzeko eta praktikatzeko duten eskubidea bermatu nahi da, hasierako adinetan kirola bera modu zabalean aberastea eta ikastea sustatzen duten programen bidez. Parte hartzen duten erakundeek hala nahi duten eskola-ume guztiak onartu beharko dituzte beren taldeetan, eta, beraz, ezin izango dute haiek osatzeko hautaketarik egin.

Programak honako jarduera hauek hartzen ditu barnean:

a. **Hastapeneko irakaskuntza-jarduerak**: oinarrizko trebetasun motorrak, kirol bakarrekoak eta kirol-topaketak garatzekoak.

b. **Lehiaketa-jarduerak**: parte hartzeko lehiaketak (Gipuzkoako eskola-txapelketak).

Oinarrizko trebetasun motorrak garatzeko jarduerak eta kirol bakarreko hastapen-jarduerak asteko entrenamenduetan egiten dira, eta, hala badagokio, kirol-topaketak eta parte hartzeko lehiaketak batez ere asteburuetan egiten dira, dagokion federazioarekin berariazko akordio bat izan ezean.

Hala ere, hasierako adinetako eskola-ume guztien garapena eta parte-hartzea errazteko eta lehia-giroa saihesteko, ez da inolako sailkapenik egongo benjamin kategoriari dagozkion “kirol-partidetan”. Beraz, parte hartzeko lehiaketak (Gipuzkoako eskola-txapelketak) alebin kategoriatik aurrera egingo dira.

### 2.1.2. ADMINISTRAZIO-ARAUAK

Erakunde antolatzaileak (ikastetxea, kluba edo kirol-elkartea) izena emango du eskola-kirolaren aplikazioan, “Lehiaketa-partaidetza-programa” ibilbidearen barruan, III. eranskinean ezarritako epeetan.

Ildo beretik, mendiko jardueren kasuan, inskripzioa erakunde antolatzailearen bidez egingo da (ikastetxea, kluba edo kirol-elkartea). Inskripzio horiek egiteko tutoriala webgune honetan argitaratzen da: https:// kirolak.gipuzkoa.eus

Hala ere, eskola-adineko kirolaren tokiko egiturak berariazko erabaki bat hartzen badu, ezarri ahal izango da benjamin eta alebin kategorietan egiten diren Kirol Bakarreko Hastapen Programen inskripzio guztiak ikastetxeen bidez egitea.

### 2.1.3. JARDUEREN ESKAINTZA

III. eranskinak 2025-2026 ikasturterako Kirol Bakarreko Hastapen Programaren laburpen-taula bat jasotzen du, parte-hartzaileen gutxieneko eta gehieneko kopuruarekin eta asteburuko jardunaldiekin batera (parte hartzeko lehiaketak edo kirol-topaketak); eta, araututako modalitateen kasuan, irakaskuntza-saioen kopurua (entrenamenduak), modalitatearen eta kategoriaren arabera.

### 2.1.4. ERREGELAMENDUAK EGOKITZEA

Ildo beretik, lehiaketa horien ezaugarri diren prestakuntza- eta jolas-helburuak lortzeko elementu egokietako bat da kirol-modalitateetako joko-araudiak adin bakoitzaren premietara eta eskakizunetara egokitzea. Horiek webgune honetan argitaratzen dira: https:/kirolak.gipuzkoa.eus

Taldeen osaera, partiden iraupena, postu espezifikoetako parte-hartzaileen txandakatzea, erabili beharreko materialen egokitzapena eta jokalekuen dimentsioak, besteak beste, eskola-ume bakoitzak bere interesekin bat datorren kirol-jarduera egiteko aukera indartzen duten faktoreak dira, inskribatutako eskola-ume guztiei parte-hartze esanguratsua bermatzeko aukerak areagotuz.

### 2.1.5. PROGRAMEN OSAERA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardunaren helburua da adin edo kategoria bakoitzerako egokienak diren helburuak eta edukiak finkatzea, kasuan kasuko kirol-federazioekin adostuta.

Ildo horretan, benjamin eta alebin kategorietan, espezializazio goiztiarretik eratorritako arriskuak saihesteko eta hasierako adinetan kirol anitzeko jarduerak dakartzan onurak sustatzeko, bermatu beharko da Kirol Bakarreko Hastapen Programa batean parte hartzea ikastetxeko Multikirola Programan parte hartzearen osagarria dela, eta ez ordezkoa. Horretarako, asteburuko jardunaldien gehieneko kopuru bat ezartzen da Kirol Bakarreko Hastapen Programetan (III. eranskina).

Ildo beretik, alebin kategoriara arte (hori barne), modalitate bateko rol edo diziplina desberdinak ezagutzeko aukera ematen duten programak sustatuko dira ikasturtean zehar.

Haur eta kadete kategorietan, lehiaketa-jarduerak kirol-modalitate bakar batera jo behar du, kategoria horiei dagozkien adinak kirol-espezializazioa hasteko egokiak direla ulertuta. Hala ere, espezializazio hori ez da zentzu hertsian ulertu behar; aitzitik, kirol kolektibo bat eta indibidual bat uztartzeko modua bilatu behar da.

### 2.1.6. IRAKASKUNTZA-JARDUERAK ANTOLATZEKO OINARRI OROKORRAK

Ondorengo modalitateren irakaskuntza-jarduerak (asteko entrenamenduak) antolatzeko irizpideak inplikatutako kirol-erakundeekin koordinatuta arautu dira (lurralde-federazioak eta/edo kirol-klubak), dagokion modalitatearen edo diziplinaren espezifikotasunak kontuan hartuta: **boleibola, hockeya, izotz-hockeya, izotz-patinaje artistikoa, piraguismoa, txirrindularitza, atletismoa, arrauna, eskubaloia, futbola, areto-futbola, saskibaloia eta errugbia**.

        - Futbola: sailkapen-talde desberdinetako taldeen artean epez kanpoko altak baimentzen dira, azken 5 jardunaldiak hasi aurretik.
- Errendimendu-hastapeneko lehiaketa:
    1. Arau orokor gisa, ez da baimentzen eskola-umeen alta ezarritako epetik kanpo.
    2. Lurralde-federazioekin adostutako irizpideak:
        - Futbola: epez kanpoko eskola-umeen baja azken 5 egunak hasi baino lehen egin beharko da, betiere jatorrizko taldeak gutxieneko kide kopurua badu.

- Eskuzko pilota: kirol-gaitasunagatik epez kanpoko eskola-umeak inskribatzeko baimena ematen da, baldin eta urtarrilaren 10a baino lehenagokoa bada. Halaber, ezarritako epetik kanpo eskola-umeen baja baimentzen da.

Eranskin honetan jasota ez dauden kasuek Kirol Zuzendaritza Nagusiaren aldez aurreko administrazio-baimena beharko dute. Horretarako, erakunde interesdunak dagokion eskabide telematikoa izapidetu beharko du baimenen aplikazioaren bidez (eskaera mota: egoera bereziak), eta banaka aztertuko dira dagokion federazioarekin.

# V. ERANSKINA
# Programatik kanpoko jarduera jakin batzuetarako baimenak emateko irizpideak (lizentzia federatua eta eremu geografikoa gainditzea eskola-aldian)

## 1. Sarrera

Eskola-kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak xedatzen duenez, lurralde historikoetako organo eskudunek ikasturte bakoitzeko eskola-kiroleko programak egingo dituzte. Programa horiei dagokienez, zenbait kirol-jarduera edo -praktika foru-organo eskudunak eman beharreko aldez aurreko administrazio-baimenaren mende daude, programa horietan jasota ez daudelako edo programa horietan jasotako arau orokorren salbuespenak direlako.

Horretarako, abuztuaren 19ko 145/2009 Foru Agindua onartu zen, eskola-adineko kirolaren urteko programetan jasotako edo jaso gabeko kirol-jardueretarako baimenak emateko prozedura arautzeko, jarduera horien xedea hauetakoren bat denean:

- *2008ko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak, Eskola Kirolari buruzkoak, 5.1. artikuluan eskolako kirolaren kategoria bakoitzerako ezartzen duen lurralde eremua gainditzen duten jarduerak antolatzea edo halakoetan parte hartzea, Eskolako Kirolaren Euskal Batzordeak txostena eman ostean.*
- *Eskola-kiroleko ibilbideetako jarduera jakin batzuetan parte hartzeko gutxieneko adina gainditzea, Eskolako Kirolaren Euskal Batzordeak aldeko txostena eman ondoren.*
- *Eskola-kiroleko programetan jasota ez dauden kirol-jarduerak antolatzea.*
- *Eskola-umeei lizentziak ematea beste lurralde bateko entitate batekin eskola-kiroleko jardueretan parte hartzeko.*
- *Eskola-umeei lizentzia federatuak ematea.*

Era berean, abuztuaren 19ko 145/2009 Foru Aginduak honako hau jasotzen du:

> *“Kanpo Ekintzako Departamentuak lankidetzako hitzarmen bana sinatzen du federazioekin, besteak beste programako jardueretan haiek eskaintzen duten laguntza teknikoa zehaztearren. Ondorioz, hitzarmen horiek bitarteko egokiak dira eskolako kirolaren urteko programan jasota ez dauden eta, beraz, berariazko baimena behar duten hainbat jarduera homologatzeko. Horrela, programan sartuta ez dauden jarduera asko homologatu ahal izango dira federazioekin sinatzen diren hitzarmenen bidez, eta horrela eskola kiroleko jardueren programan sartuta geratu, ondorio guztietarako”.*

Era berean, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legeak honako hau ezartzen du 32. artikuluan:

> *“Kirol-federazioek, berezko dituzten eskudantziez gain, administrazio-funtzio publikoak beteko dituzte eskuordetzan. Kasu horretan, Administrazio publikoaren agente laguntzaile gisa jardungo dute”.*

Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak 14. artikuluan ezartzen duenez, administrazio-funtzio publiko delegatuak dira, besteak beste, **federazio-lizentziak ematea eta izapidetzea**.

Horrela, bada, 145/2009 Foru Aginduan jasotako kasuistika batzuk baimentzeko prozedura arindu eta eraginkorrago egiteko (gaur egun horretarako gaitutako aplikazio telematikoaren bidez

izapidetu dira), irtenbide errazagoa eman nahi zaie kasu batzuei, kasuan kasuko federazioekin adostutako irizpideak direlako, honako hauen bidez:

**1.1. Eskola-kirolaren urteko programan sartuta ez dauden jarduerak federazioekiko hitzarmenen bidez homologatzea**, eta, beraz, eskola-kiroleko jarduera-programan bertan sartzea ondorio guztietarako. Hitzarmen horiek izaera juridiko-administratiboa izango dute. Jarduera horietan parte hartzeko, erakunde interesdunak ez du izapide gehigarririk egin behar Gipuzkoako Foru Aldundian baimenen aplikazioaren bidez. Dagokion lurralde-federazioak egingo du kontrola.

**Eskola-umeek eskola-lizentziarekin parte hartuko dute** jarduera homologatu horietan, eta, beraz, lizentzia horrek dakarren aseguruaren estaldura izango dute.

Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan jasotakoak baino eremu handiagoko jarduerak dira, praktikatzaile gutxi dituztelako eta azpiegiturarik ez dutelako. Helburua da parte-hartzaileen kirol-progresio egokia ahalbidetuko duen lehiaketa bat bermatzea, motibatzailea izango dena eta kirol-modalitate bera egiten duten eskola-umeen arteko sozializazioa sustatuko duena. Hurrengo lurralde-eremuan baldintza horiek betetzen ez badira, hurrengoa hartu da erreferentziatzat, eta horrela hurrenez hurren.

Eskola-aldiko salbuespen-egoera horiek alebin kategoriatik aurrera aurreikusten dira (hori barne), eskola-umeen berehalako kokapenaren barruan kirol-jarduera lehenesteko/bermatzeko, joan-etorriak saihestuz eta haurren eta haien senideen bizi-erritmoa errespetatuz, literatura zientifikoaren gomendioekin bat etorriz. Neurri horrek eskola-umeen ongizate fisiko, emozional eta soziala errazten du, haien garapen integralari lehentasuna emanez eta hasierako etapetan familien gaineko presioak arinduz. Desberdintasuna ere murriztu nahi da, distantzia eta garraio-kostuak oztopo izan baitaitezke familia askorentzat. Tokiko kirola sustatzean, guztientzako sarbidea errazten da, faktore ekonomikoa oztopo izan gabe.

Benjamin kategorian, gutxiengoen modalitateen kasuan, talde kopuru txikia dela-eta ezin bada bermatu gutxieneko kalitatea duten kirol-topaketetan parte hartzeko eskubidea, salbuespen gisa Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eremua gainditu ahal izango da, Eskola Kirolari buruzko 125/2008 Dekretuaren 5.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, Kirol Zuzendaritza Nagusiaren aldez aurreko administrazio-baimenarekin.

Laburpen-taula honek homologatutako jarduerak jasotzen ditu, modalitatearen eta kategoriaren arabera.

HOMOLOGATUTAKO JARDUERAK MODALITATEAREN ETA KATEGORIAREN ARABERA

| MODALITATEA | KATEGORIA | ERAKUNDE ANTOLATZAILEA | JARDUERA HOMOLOGATUAREN EREMU GEOGRAFIKOA | GORAGOKO EREMUKO GEHIENEKO JARDUNALDI KOPURUA |
|---|---|---|---|---|
| Errugbia | Alebina | Gipuzkoako Federazioa | Autonomia-eremua eta autonomia-erkidegoz gaindikoa | 2 jardunaldi, Multikirola Programa ez oztopatzeko baldintzapean |
| | Infantila | Euskal Federazioa | Autonomia-erkidegoz gaindiko eremua | Lehiaketa-egutegian ezartzen direnak. |
| Hockeya | Alebina | Euskal Federazioa | Esparru autonomikoa | Lehiaketa-egutegian ezarritakoak, Multikirola Programa ez oztopatzeko baldintzapean |
| | Infantila | Euskal Federazioa | Autonomia-erkidegoz gaindiko eremua | Lehiaketa-egutegian ezartzen direnak. |
| Waterpoloa | Alebina | Gipuzkoako Federazioa | Esparru autonomikoa | 1 jardunaldi, Multikirola Programa ez oztopatzeko baldintzapean |

HOMOLOGATUTAKO JARDUERAK MODALITATEAREN ETA KATEGORIAREN ARABERA

| MODALITATEA | KATEGORIA | ERAKUNDE ANTOLATZAILEA | JARDUERA HOMOLOGATUAREN EREMU GEOGRAFIKOA | GORAGOKO EREMUKO GEHIENEKO JARDUNALDI KOPURUA |
|---|---|---|---|---|
| Patin-hockey tradizionala | Alebina | Bizkaiko Federazioa | Esparru autonomikoa | Lehiaketa-egutegian ezarritakoak, Multikirola Programa ez oztopatzeko baldintzapean |
| Lerroko patin-hockeya | Alebina | Euskal Federazioa | Esparru autonomikoa eta autonomia-erkidegoz gaindikoa | Lehiaketa-egutegian ezarritakoak, Multikirola Programa ez oztopatzeko baldintzapean |
| Izotz-hockeya | Alebin 2. urtea eta infantila | Tokiko kirol-erakundea | Autonomia-eremua eta autonomia-erkidegoz gaindikoa | 5 jardunaldi, Multikirola Programa ez oztopatzeko baldintzapean |
| Patinaje artistikoa | Alebin 2. urtea. | Tokiko kirol-erakundea | Autonomia-eremua eta autonomia-erkidegoz gaindikoa | 5 jardunaldi, Multikirola Programa ez oztopatzeko baldintzapean |
| Padela | Alebin 2. urtea | Euskal Federazioa | Esparru autonomikoa | Lehiaketa-egutegian ezarritakoak, Multikirola Programa ez oztopatzeko baldintzapean |
| Squasha | Alebina | Euskal Federazioa | Esparru autonomikoa | 4 jardunaldi, Multikirola Programa ez oztopatzeko baldintzapean |
| Piraguismoa (estilo librea) | Alebina eta infantila | Gipuzkoako Federazioa | Autonomia-erkidegoz gaindiko eremua | 2 jardunaldi, alebin kategorian, Multikirola Programa ez oztopatzeko baldintzapean |
| Bela | Alebina | Euskal Federazioa | Esparru autonomikoa | Lehiaketa-egutegian ezarritakoak, Multikirola Programa ez oztopatzeko baldintzapean |

1.2. **Federazioek zuzenean izapidetu eta emandako lizentzia federatuak, haien administrazio-funtzio publikoen barruan. Erakunde interesdunak eskola-kirolaren aplikazioaren bidez egin beharko du eskaera.** Izendunak izan beharko dute. Kasuan kasuko federazioek zuzenean izapidetu ahal izango dituzte entitate interesdunengandik jasotzen dituzten eskabideak, eranskin honetan jasotzen diren irizpideekin bat datozenean. Kasu horretan, lizentzia federatuaren xede diren jarduerak eskolako kirolaren urteko programatik kanpo geratzen dira ondorio guztietarako.

**Beraz, jarraian jasotzen diren irizpideak Gipuzkoako Foru Aldundiak baimentzen ditu, honako foru-agindu honen bidez. Beraz, kasu horietan, erakunde interesdunak ez du izapide gehigarririk egin beharko Gipuzkoako Foru Aldundian aplikazioaren baimenen bidez.**

Irizpide horiek ezartzeko, eskola-kirolari buruz indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen mugak hartu dira erreferentziatzat,.

Baimenak eskatzeko eta emateko, eskola-kirolari buruzko 125/2008 Dekretuan jasotako kategoriak hartuko dira kontuan.

Gerta daitezkeen eta eranskin honetan jasotzen ez diren beste kasu batzuk banaka aztertuko dira federazioarekin batera. Kasu horretan, erakunde interesdunak baimen telematikoa eskatu beharko du ebazpen bidez berariazko baimena lortzeko, 145/2009 Foru Aginduan oinarrituta.

Irizpide horiek argitaratzeak, aldi berean, gardentasuna eta publizitatea eskaini nahi ditu, Gipuzkoako gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko otsailaren 6ko 4/2014 Foru Arauaren arabera eta legeria orokorraren arabera.

Era berean, egokitzat jotzen da irizpide horiek eskola-kirolaren urteko programan jasotzea, eskola-adineko eskola-umeei eragiten dieten irizpideak baitira.

## 2. Gipuzkoako Foru Aldundiak modalitatearen arabera baimendutako irizpideak, lizentzia federatuak izapidetzeko eta eskola-adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren programan jasota ez dauden jarduerak homologatzeko

### ARKU TIRAKETA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebinen eta infantilen kategoriatik aurrera, armen Estatuko Legearen ondoriozko arma garraiatzeko.
- Infantil kategoriatik aurrera, Espainiako Txapelketan parte hartzeko.

### ARRAUNA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- Infantil kategoriatik aurrera, lehiaketa federatuan parte hartzeko (ez dago eskola-lehiaketarik).

### ATLETISMOA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko infantil kategoriatik aurrera, Euskadiko Txapelketan eta Espainiako Txapelketan parte hartzeko.

### AUTOMOBILISMOA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebin kategoriatik aurrera, lehiaketa federatuan parte hartzeko (ez dago eskola-lehiaketarik).

### BADMINTONA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebin kategoriatik aurrera, Espainiako Txapelketan parte hartzeko.

## BEISBOLA ETA SOFBOLA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebin kategoriatik aurrera, Espainiako Txapelketan parte hartzeko.

## BELA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebin kategoriatik aurrera, eremu nazionaleko 5 estropadatan parte hartzeko: Espainiako Txapelketa, Espainiako Kopa eta zirkuitu nazional bateko 6 estropada.

## BOLA ETA TOKA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- Infantil kategoriatik aurrera, autonomia mailako lehiaketa batean parte hartzeko.

## BOLEIBOLA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko kadete kategoriako eskola-umeak, gazte kategorian jokatzeko, betiere kadete taldea 8 jokalari baino gutxiagorekin geratzen ez bada.

## ERRUGBIA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. infantileko kategoriako eskola-umeak kadeteen kategorian jokatzeko, taldea osatzeko edo kirol-maila kontuan hartuta. Kadete-taldearekin partida zehatzetan parte hartzeko bada, baimena emango da baldin eta eskola-umeak asteburu berean bi partidatan parte hartzen ez badu (infantil taldearekin eta kadete taldearekin). Nolanahi ere, 2. urteko 4 infantil igo ahal izango dira gehienez, edo kadete taldea 20 jokalarirekin osatu arte.

**Homologatutako jarduerak**:

Eskola-kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan jasotzen direnak baino eremu handiagoko jarduera hauek homologatzen dira, praktikatzaile gutxi dituztelako eta/edo azpiegiturarik ez dutelako, parte-hartzaileen kirol-progresio egokia ahalbidetzen duen kirol-lehiaketa/-praktika bat bermatzeko. Programan jasota daude.

- Eskola-aldian, alebin kategorian, EAEn talde gutxi daudenez, baimentzen da lurralde-federazioaren eskola-egutegian sartzen den lurralde-eremutik kanpoko bi egunetan gehienez parte hartzea.
- Eskola-aldian, infantil kategorian, EAEn talde gutxi daudenez, baimena ematen da Euskal Federazioaren egutegian sartzen diren EAEtik kanpoko jardunaldietan parte hartzeko.

## ESKRIMA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebin kategoriatik aurrera, txapelketa nazionaletan parte hartzeko.
- 2. urteko infantilak, kadete kategorian parte hartzeko.

## ESKUBALOIA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko infantil mailako eskola-umeek euskal ligan parte har dezaten, klub bereko kadete talde batekin, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:
  - Klubak kadeterik ez izatea Lurralde Ligan.
  - 2. urteko infantil mailako 4 eskola-ume baimenduko dira gehienez, gehienez 16 jokalari osatu arte.
  - Eskola-umeek ezingo dute asteburu berean bi partidutan parte hartu (infantil taldearekin eta kadete taldearekin).

- Lurralde Ligako kadete taldeko eskola-umeek Euskal Ligako klub bereko kadete taldearekin parte har dezaten, baldintza hauek betetzen badituzte:
  - Euskal ligako taldeak 18 jokalari baino gutxiago izatea.
  - Jardunaldi bakoitzean 4 jokalari baimenduko dira gehienez. Kasu horretan, baimenak ez-izendunak izan daitezke.
  - Eskola-umeek asteburu berean parte hartu ahal izango dute bi partidatan, betiere egun desberdinetan badira.

- Lurralde Ligako 2. urteko kadete kategoriako eskola-umeek klub bereko Lurralde Ligako gazte taldean parte har dezaten, baldintza hauek bete behar dira:
  - Gazte taldeak 18 jokalari baino gutxiago izatea.
  - Jardunaldi bakoitzean 4 jokalari baimenduko dira gehienez. Kasu horretan, baimenak ez-izendunak izan daitezke.
  - Eskola-umeek asteburu berean parte hartu ahal izango dute bi partidatan, betiere egun desberdinetan badira.
  - Salbuespen gisa, gazte kategoriako taldeko atezainaren lesioa gertatuz gero, 1. urteko kadete kategoriako eskola-ume batek parte hartzea baimentzen da, atezain lesionatua itzuli arte. Lesioa elkartearen idazki baten edo txosten mediko baten bidez justifikatu beharko da.
  - Salbuespen gisa, 2. urteko kadete kategoriako eskola-umeek Gipuzkoako Kopako klub bereko gazte taldearekin parte hartu ahal izango dute, kide kopuruari dagokionez mugarik gabe.

- Lurralde Ligako 2. urteko kadete-kategoriako eskola-umeek klub bereko Lurralde Ligako gazte taldea osa dezaten, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:
  - Gazte taldea osatzeko gutxieneko jokalari-kopururik ez izatea. Hau da, 9 jokalari baino gutxiago izatea.
  - Erdiak gehi bat gazte kategoriakoak izango dira.

- Lurralde Ligako 2. urteko kadete kategoriako eskola-umeek gazte kategorian joka dezaten (Gipuzkoako Kopa): Gipuzkoako Kopan 2. urteko kadete kategoriako eskola-umeei baimena ematen zaie gazte kategoriako lehiaketan jokatzeko, infantil kopuruari dagokionez mugarik gabe. Ez da inolako aldaketarik egin behar eskola-kirolaren aplikazioko inskripzioetan.

## PILOTA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- Infantil mailako 2. urteko eskola-umeek kadete kategorian parte har dezaten, federazioarekin adostutako irizpideetan oinarrituta, alderdi teknikoak/taktikoak, kirol-emaitzak eta eskola-umearen garapen fisikoa kontuan hartuta.

## FUTBOLA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

Baimen horiek emango dira, baldin eta, uneko denboraldian, kadete kategoriako jokalari bat kadete taldean inskribatzen bada, eta, horrela, dagokion federazioarekin adostutako gutxieneko jokalari-kopurua gainditzen bada (18), kadete taldea osatzeko aldez aurretik baimendu diren 2. urteko infantilek dagokien infantil taldearekin soilik jokatu ahal izango dute.

- Errendimenduko 2. urteko infantil mailako eskola-umeek (Infantil Handi eta Nesken Infantila F-11) Lehen Kadete kategorian parte har dezaten ikasturte osoan: Kadete-taldearen gutxieneko jokalari-kopurua (18) osatzeko behar diren jokalariak baimentzen dira, gehienez ere 4 jokalari. Eskaera denboraldiaren hasieran egin beharko da. Klubak ez badu errendimendu talderik infantil kategorian, partaidetza taldeko bigarren urteko infantil kategoriako ikasleei baimena emango zaie.
- Errendimenduko 2. urteko infantil mailako eskola-umeek (Infantil Handi eta Nesken Infantila F-11) Ohorezko Kadete kategorian parte har dezaten ikasturte osoan: Eskaera egiteko baldintza izango da udalerriko klub bakarra izatea, lehen kadeteko lehiaketan eta Preferente kadeteko lehiaketan talderik ez izatea, denboraldiaren hasieran eskatzea eta kadete-taldeko ezein kideri kalterik ez eragitea. Kadete-taldearen gutxieneko jokalari-kopurua (18) osatzeko behar diren jokalariak baimentzen dira, gehienez ere 4 jokalari. Baimendutako eskola-umeak kadete-taldean bakarrik jokatuko du denboraldi osoan. Klubak ez badu errendimendu talderik infantil kategorian, partaidetza taldeko bigarren urteko infantil kategoriako ikasleei baimena emango zaie.
- Errendimenduko 2. urteko infantil mailako eskola-umeek (Infantil Handi eta Nesken Infantila F-11) Lehen Kadete kategorian parte har dezaten, beharrezkoa denean: Kadete-taldearen gutxieneko jokalari-kopurua (18) osatzeko behar diren jokalariak baimentzen dira, gehienez ere 4 jokalari. Baimena lortzeko, eskola-umeak ezin izango du asteburu berean parte hartu bi partidetan (infantil taldearekin eta kadete taldearekin), eta horietako batean baino ezin izango du parte hartu. Klubak ez badu errendimendu talderik infantil kategorian, partaidetza taldeko bigarren urteko infantil kategoriako ikasleei baimena emango zaie.
- Errendimenduko 2. urteko infantil mailako eskola-umeek (Infantil Handi eta Nesken Infantila F-11) Ohorezko Kadete kategorian parte har dezaten, beharrezkoa denean: Eskaera egiteko baldintza izango da udalerriko klub bakarra izatea eta lehen kadeteko lehiaketan edo kadete Preferenteko lehiaketan talderik ez izatea. Kadete taldearen gutxieneko jokalari-kopurua

(18) osatzeko behar diren jokalariak baimentzen dira, gehienez ere 4 jokalari. Jokalari horiek lehiaketa honetan parte hartzeko behar diren kirol-gaitasunak bete beharko dituzte. Baimena lortzeko, eskola-umeak ezin izango du asteburu berean parte hartu bi partidetan (infantil taldearekin eta kadete taldearekin), eta horietako batean baino ezin izango du parte hartu. Klubak ez badu errendimendu talderik infantil kategorian, partaidetza taldeko bigarren urteko infantil kategoriako ikasleei baimena emango zaie.

## ARETO FUTBOLA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- Infantil kategoriako 2. urteko eskola-umeek kadeteen kategorian parte har dezaten, beharrezkoa denean. Gutxienez 15 jokalari izateko behar diren infantilak baimentzen dira, betiere eskola-umeen erdia gehi bat kadete-kategoriakoak badira. Baimena lortzeko, eskola-umeak ez du asteburu berean bi partidutan parte hartu behar.
- Errendimenduko 2. urteko infantil mailako eskola-umeek kadete kategorian parte har dezaten ikasturte osoan: Infantil kategoriako eskola-umeak kadete-lehiaketan baino ezin izango du jokatu. Kasua banaka aztertuko da federazioarekin.

## GIMNASTIKA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- Errendimenduari ekiteko ibilbideko 2. urteko alebin kategoriatik aurrera eta kirol promes eta talentuen ibilbidetik aurrera (A kategoria) eskola-umeek lurralde-mailako eta maila autonomikoko lehiaketa federatuetan eta Espainiako Txapelketetan (banakakoak, taldekoak eta taldekoak) parte har dezaten.
- Errendimenduari ekiteko ibilbideko alebin kategoriako eta kirol-promesen eta -talentuen ibilbideko (A kategoria) 2. urteko eskola-umeek infantil kategorian parte har dezaten ikasturte osoan. Infantil kategoriako lizentzia baino ez du izango.
- Errendimenduari ekiteko ibilbideko eta kirol promes eta talentuen ibilbideko (A kategoria) 2. urteko infantil kategoriako eskola-umeek kadete kategorian parte har dezaten ikasturte osoan. Kadete kategoriako lizentzia baino ez du izango.
- Eskola-umeek B edo C kategoriako 2. urtetik aurrera, kadete taldea osa dezaten denboraldi osoan. Kadete kategoriako lizentzia baino ez du izango. Gehienez 2 eskola-ume igotzeko baimena emango da.
- Eskola-umeek Euskadiko Txapelketan parte har dezaten infantilen 2. mailatik aurrera (B edo C kategoriakoak).

## HALTEROFILIA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- Infantil kategoriatik aurrerako eskola-umeek lehiaketa federatuan parte har dezaten.
- Infantil kategoriako 2. urteko eskola-umeek kadeteen kategorian parte har dezaten, beharrezkoa denean.

## HIPIKA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebin kategoriatik aurrerako eskola-umeek lehiaketa federatuan edo lizentzia federatua behar duten lehiaketetan parte har dezaten, betiere eskola-umeak gutxienez 3 galope baditu.

## HOCKEYA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- Infantil kategoriako eskola-umeek sektoreko faseetan parte har dezaten (Espainiako Txapelketaren Aurreko Fasea).
- Errendimenduko 2. urteko infantil mailako eskola-umeek kadete kategorian parte har dezaten ikasturte osoan: Kadete kategoriako lizentzia baino ez dute izango. 2. urteko 4 infantil baimenduko dira gehienez, gutxienez 16 jokalari izan arte.
- Infantil kategoriako 2. urteko eskola-umeek kadeteen kategorian parte har dezaten, beharrezkoa denean. 2. urteko 4 infantil baimenduko dira gehienez, gutxienez 16 jokalari izan arte. Baimena lortzeko, eskola-umeak ez du asteburu berean bi partidutan parte hartu behar.

**Homologatutako jarduerak**:

Eskola-kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan jasotzen direnak baino eremu handiagoko jarduera hauek homologatzen dira, praktikatzaile gutxi dituztelako eta/edo azpiegiturarik ez dutelako, parte-hartzaileen kirol-progresio egokia ahalbidetzen duen kirol-lehiaketa/-praktika bat bermatzeko:

- Eskola-aldian, alebin kategoriako taldeek parte hartu ahal izango dute, lurralde-federazioaren eskola-lehiaketaren egutegiaren barruan (gehienez 9 jardunaldi) eta Eusko Jaurlaritzari aurkeztutako proposamenarekin bat etorriz, autonomia-erkidegoko jardunaldietan, Euskadin talde gutxi daudelako, betiere Kirol Anitzeko Programan parte hartzea eragozten ez badu.
- Eskola-garaian, infantil mailako taldeek autonomia-esparruko eskola-ligan parte hartu ahal izango dute. Liga horretan EAEtik kanpoko komunitate limitrofeetako klubek parte hartzen dute, Euskadin talde gutxi daudelako. Autonomia Erkidegoaz gaindiko erkidego mugakide horietara joatea baimentzen da, Euskal Federazioak antolatutako eskola-kirolaren egutegian sartutako partidak lehiatzeko.

## IGERIKETA

### a) Igeriketa

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko infantil kategoriako eskola-umeek lehiaketa federatuetan parte har dezaten (Gipuzkoako Kopa, Gipuzkoako neguko txapelketa, Gipuzkoako udako txapelketa, Euskal Herriko txapelketa, Espainiako txapelketa).
- 2. urteko alebinen eta 1. urteko infantilen kategoriako eskola-umeek Espainiako Eskola Adineko Igeriketa Txapelketan (CEDA), Euskal Herriko Txapelketan edo Espainiako Txapelketan

soilik parte har dezaten. CEDArako eta Espainiako Txapelketarako, lizentzia federatua ez da izapidetuko dagokion txapelketa baino 3 aste lehenago. Euskal Herriko Txapelketaren kasuan, lizentzia federatua Euskadiko Eskola Jokoak amaitu ondoren izapidetuko da.

**b) Waterpoloa**

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebin kategoriako eskola-umeek infantil kategoriako taldea osa dezaten, taldeak osatzeko zailtasunak dituztelako. Gehienez ere 2. urteko 4 alebin baimenduko dira, edo infantilen taldea gutxienez 13 jokalarirekin osatu arte. Baimena emateko baldintza izango da eskola-umeek asteburu berean bi partidutan ez parte hartzea. Eskaera azaroaren 30a baino lehen egin beharko da.
- Infantil mailako eskola-umeek lehiaketa federatuan parte har dezaten (erkidegoaz gaindiko lehiaketa). Eskaera azaroaren 30a baino lehen egin beharko da. Halaber, talde sailkatuek Espainiako selekzioen txapelketan eta Estatuko kluben araberako txapelketan parte hartu ahal izango dute.
- Infantil kategoriako 2. urteko eskola-umeek kadeteen kategorian parte har dezaten, taldea osatzeko edo goi-mailako kirola egiteko. Azken kasu horretan, beren kirol-ezaugarriengatik nabarmentzen diren eskola-umeei bakarrik emango zaie baimena. Baimenduta dago 2. urteko 4 infantil igotzea, gehienez ere, kadete taldea osatu arte, gutxienez 16 jokalarirekin. Baimena emateko baldintza izango da eskola-umeek asteburu berean bi partidutan ez parte hartzea.

**Homologatutako jarduerak**:

Eskola-kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan jasotzen direnak baino eremu handiagoko jarduera hauek homologatzen dira, praktikatzaile gutxi dituztelako eta/edo azpiegiturarik ez dutelako, parte-hartzaileen kirol-progresio egokia ahalbidetzen duen kirol-lehiaketa/-praktika bat bermatzeko:

- Eskola-aldian, alebin kategoriako taldeek EAEko lehiaketa-jardunaldi batean parte hartzea baimentzen da, dagokion federazioarekin adostutako eskola-kirolaren egutegiaren barruan dagoelako, betiere “Multikirola” programan parte hartzeko eragozpenik ez badakar.

**c) Igeriketa artistikoa**

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebin kategoriatik aurrerako haurrek Gipuzkoako Txapelketan, Euskal Herriko Txapelketan, Espainiako Txapelketan eta Espainiako Txapelketara joateko beharrezko proba espezifikoetan bakarrik parte har dezaten. Lizentzia federatua ez da izapidetuko dagokion txapelketa egin baino 3 aste lehenago.

## PATINAJEA

**a) Patin-hockey tradizionala**

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- Eskola-umeek alebin kategoriatik aurrera Espainiako Txapelketan parte har dezaten.

- 2. urteko infantil mailako eskola-umeek kadete talde sailkatua osa dezaten Espainiako Txapelketan parte hartzeko.

**Homologatutako jarduerak**:

Eskola-kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan jasotzen direnak baino eremu handiagoko jarduera hauek homologatzen dira, praktikatzaile gutxi dituztelako eta/edo azpiegiturarik ez dutelako, parte-hartzaileen kirol-progresio egokia ahalbidetzen duen kirol-lehiaketa/-praktika bat bermatzeko:

- Alebin kategoriako taldeek EAEko Eskola Txapelketan parte har dezaten, diziplina horretan klub gutxi daudelako, lurralde mailako lehiaketa bat antolatzeko.

**b) Lerroko patin-hockeya**

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebinen kategoriako eskola-umeek erkidegoaz gaindiko ligan parte har dezaten, goragoko hurrengo kategoriako eskola-umeekin (1. urteko infantilen kategoria), taldea osatzeko. 2. urteko alebinen kategoriako 4 eskola-ume baimenduko dira gehienez, edo taldea gutxienez 10 jokalarirekin osatu arte.
- Infantilen mailako eskola-umeek lehiaketa federatuan parte har dezaten (ez dago eskola-lehiaketarik).

**Homologatutako jarduerak**:

Eskola-kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan jasotzen direnak baino eremu handiagoko jarduera hauek homologatzen dira, praktikatzaile gutxi dituztelako eta/edo azpiegiturarik ez dutelako, parte-hartzaileen kirol-progresio egokia ahalbidetzen duen kirol-lehiaketa/-praktika bat bermatzeko:

- Alebin kategoriako taldeek EAEko Eskola Txapelketan parte har dezaten, diziplina horretan klub gutxi daudelako, lurralde mailako lehiaketa bat antolatzeko.

**c) Abiadura-patinajea**

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebin kategoriatik aurrera eskola-umeek Espainiako Kopan parte har dezaten.
- Infantil mailako eskola-umeek Euskal Herriko Txapelketan eta Espainiako Txapelketan parte har dezaten.

**d) Scooterra**

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebin kategoriatik aurrera eskola-umeek erkidegoz gaindiko txapelketetan parte har dezaten.

**e) Skatea**

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebin kategoriako eskola-umeek Euskal Herriko Txapelketan eta Espainiako Txapelketan parte har dezaten.

## JUDOA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- Infantil mailako eskola-umeek Espainiako Kopan edo Espainiako Txapelketan parte har dezaten.

## KARATE

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebin kategoriako eskola-umeek Estiloen Kopan, Aurre-Hautaketan eta Espainiako Txapelketan bakarrik parte har dezaten.
- Infantil kategoriatik aurrerako eskola-umeek lehiaketa federatuan parte har dezaten.

## KIROL EGOKITUA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebin kategoriatik aurrera eskola-umeek beren kategoriako edo goragoko hurrengo kategoriako lehiaketa federatuetan parte har dezaten. Ez dago eskola-lehiaketarik.

## MAHAI TENISA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebin kategoriatik aurrera eskola-umeek EAEko eremuko estatuaz aurreko sektoreen araberako liga batean parte har dezaten. Sailkatutako eskola-umeek Espainiako Txapelketan parte hartuko dute. Sailkatu gabeko eskola-umeek errepeska jokatu ahal izango dute.

## MOTOZIKLISMOA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- infantil kategoriatik aurrerako eskola-umeek erkidegoaz gaindiko lizentzia federatua behar duten jardueretan parte har dezaten.

## NEGUKO KIROLAK

### a) Izotz-hockeya

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko infantil kategoriako eskola-umeek Ipar Ligan parte har dezaten, U15 taldearekin. Eskaera azaroaren 30a baino lehen egin beharko da.
- 2. urteko alebinen edo 1. urteko infantilen kategoriako eskola-umeek Ipar Ligako U15 taldea osa dezaten. Eskabide horiek banaka aztertuko dira, Gipuzkoako Neguko Kiroletako Federazioarekin batera.

**Homologatutako jarduerak**:

Eskola-kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan jasotzen direnak baino eremu handiagoko jarduera hauek homologatzen dira, praktikatzaile gutxi dituztelako eta/edo azpiegiturarik ez dutelako, parte-hartzaileen kirol-progresio egokia ahalbidetzen duen kirol-lehiaketa/-praktika bat bermatzeko:

- Eskola-aldian, 2. urteko alebinen eta 1. urteko infantilen (U13) kategoriako taldeek lurralde-eremutik kanpoko 5 jaialditan parte har dezaten, dagokion federazioarekin adostutako eskola-kirolaren egutegiaren arabera, diziplina horretan klub gutxi daudelako lurralde-mailako lehiaketa bat antolatzeko. Jaialdi horietan parte hartzea ez da oztopo izango ikastetxeetako Multikirola Programaren larunbat goizeko jardunaldiak egiteko.

### b) Patinaje artistikoa

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebin kategoriatik gorako ikasleek Espainiako Txapelketan parte har dezaten.
- Promesen eta kirol-talentuen ibilbideko 2. urtetik aurrerako alebin kategoriako ikasleek estatu mailako lehiaketa federatuetan parte har dezaten (5 jardunaldi).
- Infantil kategoriatik aurrerako ikasleek estatu mailako lehiaketa federatuetan parte har dezaten (5 jardunaldi).

**Actividades homologadas**:

Eskola-kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan jasotzen direnak baino eremu handiagoko jarduera hauek homologatzen dira, praktikatzaile gutxi dituztelako eta/edo azpiegiturarik ez dutelako, parte-hartzaileen kirol-progresio egokia ahalbidetzen duen kirol-lehiaketa/-praktika bat bermatzeko:

- Eskola-garaian, alebin kategoriako eskola-umeek gehienez ere 5 jaialditan parte har dezaten, eta gehienez ere 4 jardunaldi direlarik autonomiaz gaindikoak eta autonomia-erkidegoz gaindikoak. Jaialdi horietan parte hartzea ez da oztopo izango ikastetxeetako Multikirola Programaren larunbat goizeko jardunaldiak egiteko.

**c) Iraupen-eskia**

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebin kategoriatik aurrera eskola-umeek gehienez 5 lehiaketa federatutan parte har dezaten.
- Infantil kategoriatik aurrerako eskola-umeek lehiaketa federatuan parte har dezaten.

**d Snowboarda**

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebin kategoriatik aurrera eskola-umeek gehienez federatutako 5 lehiaketatan parte har dezaten (Euskadiko Txapelketa, Espainiako Txapelketan eta Espainiako Txapelketan parte hartzeko 3 proba puntuagarri eta derrigorrezkoak).
- Infantil kategoriatik aurrerako eskola-umeek lehiaketa federatuan parte har dezaten.

## PADELA

**Homologatutako jarduerak**:

Eskola-kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan jasotzen direnak baino eremu handiagoko jarduera hauek homologatzen dira, praktikatzaile gutxi dituztelako eta/edo azpiegiturarik ez dutelako, parte-hartzaileen kirol-progresio egokia ahalbidetzen duen kirol-lehiaketa/-praktika bat bermatzeko:

- Eskola-garaian, 2. urteko alebin kategoriako eskola-umeek, dagokien lurralde-federazioarekin adostutako eskola-kirolaren programako jardunaldietan ez ezik, autonomia-erkidegoko euskal zirkuituko lehiaketa-jardunaldietan ere parte har dezaten, lurraldean talde gutxi daudelako. Euskal Zirkuituan parte hartzeak ezin izango du oztopatu ikastetxeetako Multikirola Programaren larunbat goizeko jardunaldia.

## PIRAGUISMOA (slaloma, pista, kayak surfa eta estilo librea)

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- Infantil mailako eskola-umeek Euskal Herriko Txapelketan eta Espainiako Txapelketan parte har dezaten.

## SASKIBALOIA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko infantil kategoriako eskola-umeek kadete federatuen lehiaketan parte har dezaten (Euskal Liga), kirol maila altuagatik. Beren nolakotasunengatik eta etorkizun posible gisa nabarmentzen diren eskola-umeei emango zaie baimena. Eskaera horiek banaka aztertuko dira federazioarekin batera.

## SQUASHA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- Infantil kategoriatik aurrerako eskola-umeek autonomia-erkidegoz gaindiko lehiaketa federatuetan parte har dezaten, EAEn talde gutxi baitaude.

**Homologatutako jarduerak**:

Eskola-kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan jasotzen direnak baino eremu handiagoko jarduera hauek homologatzen dira, praktikatzaile gutxi dituztelako eta/edo azpiegiturarik ez dutelako, parte-hartzaileen kirol-progresio egokia ahalbidetzen duen kirol-lehiaketa/-praktika bat bermatzeko:

- Eskola-aldian, alebin kategoriako eskola-umeek lurralde-mailako 9 lehiaketa-jardunalditan edo partidetan parte har dezaten, gehienez ere; horietatik 4 autonomia-erkidegokoak izan ahal izango dira, eta Euskal Federazioaren egutegiaren barruan egongo dira, EAEn talde gutxi daudelako. Jardunaldi horietan parte hartzea ez da oztopo izango ikastetxeetako Multikirola Programaren larunbat goizeko egunetarako.

## TRIATLOIA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- Infantil mailako eskola-umeek Euskal Herriko Txapelketan eta Espainiako Txapelketan parte har dezaten.

## TXIRRINDULARITZA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- Infantil mailako eskola-umeek Euskal Herriko Txapelketan eta Espainiako Txapelketan parte har dezaten.

## URPEKO JARDUERAK

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebin kategoriatik aurrera eskola-umeek lehiaketa federatuetan parte har dezaten (ez dago eskola-lehiaketarik).

## XAKEA

Kasu hauetan baimentzen da lizentzia federatua izapidetzea:

- 2. urteko alebin kategoriatik aurrera eskola-umeek goi-mailako kirol lehiaketa federatuetan parte har dezaten. Beren kirol-ezaugarriengatik nabarmentzen diren eskola-umeei bakarrik emango zaie baimena.

# VI. ERANSKINA
# Dirulaguntzen araudia eta kirol sariak

## 1. Dirulaguntzen araudia

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kiroletako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, Gipuzkoako lurralde historikoko ikasleen arteko kirolgintza bultzatu eta kalitatea hobetzeko asmoz, 2026 urteko Aurrekontuetan eta horretarako onartuko diren Oinarrien arabera, zenbait diru iturri eskaintzen du

## 2. Kirol sariak

Gipuzkoako Foru Aldundiak ondoko kirol sariak ezartzen ditu  alebin kategoriatik goragoko Gipuzkoako txapelketetan eta infantil kategoriako Aldundiko kopetan egiten diren lehiaketetan, izan mutilen artean, nesken artean edo mistoak:

1. **Gipuzkoako Txapelketak**: Talde kiroletan Txapeldunentzako trofeoa eta dominak. Txapeldun-ordearentzako trofeoa eta dominak. Banako kiroletan, 1., 2. eta 3.arentzako dominak emango dira.
2. **Foru Aldundiko Kopak**: Kirol eta eskualde bakoitzeko infantil mailako talde txapeldunarentzako trofeoa.